

DOKTOREGO TESIA

JOLAS SOZIALA ETA INPLIKAZIOA
HAUR HEZKUNTZAKO KANPO ESPAZIOAN



NEKANE MIRANDA FRANCO / Eskoriatza, 2017

JOLAS SOZIALA ETA INPLIKAZIOA HAUR HEZKUNTZAKO KANPO ESPAZIOAN

Nekane Miranda Franco

Zuzendariak:

Iñaki Larrea Hermida

Alexander Muela Aparicio



Mondragon Unibertsitatean doktoregoa lortzeko egindako doktore-tesia

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Mondragon Unibertsitatea

2017ko Apirila

Unai, Bidane eta Suari,

ESKER ONA

Ondorengo lerroen bitartez nire eskerrik beroena eman nahi diet, modu batean edo bestean, tesi hau egitea posible egin duten guztiei.

Lehenik eta behin, doktorego-tesi honetako bi zuzendariei, Iñaki Larrea eta Alex Muelari. Urte hauetan guztietan zuek izan zarete duda barik tesi honetan interes, lan eta gogo handiena erakutsi dezutenak. Labur eta zehatz esatekotan, tesi hau zuena da.

Bigarrenik, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta Gipuzkoako Foru Aldundia eskertu nahi ditut tesiari babes ekonomikoa eman izanagatik. Lehenengoari, doktoradutza bideratzeko eskainitako bekagatik eta bigarrenari kanpo espazioko proiektua gauzatzen laguntzeagatik. Azken horretan ere ezin ahaztu Aitziber Martinez de Lagosek egindako lan guztia ikastetxeetako berrikuntza prozesuak aurrera eramateko. Era berean nire eskerrik handiena eman nahi diet beraien ikastetxeetako ateak ireki zizkidaten guztiei: zuzendari, irakasle, haur, guraso eta komunitate osoari. Zuen kanpo espazioak eta berau erabiltzen zuten haur eta irakasleak aztertu ezean, lan hau ez litzake posible izango.

HUHEZIKo fakultatean jarraitu nahi dut eskerrak ematen, eta duda barik bertatik eramaten dudan onena eta handienak direlako: Mila esker Nagore eta Jaione, Jaione eta Nagore, biotako bat bestearen aurretik jartzea ezinezkoa egiten zait. Era berean, fakultatean igarotako urteetan izandako bulegoko, materiako, zein bazkari uneetako kide guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiet elkarrekin pasatako une atseginegatik.

Nola ez, lerro batzuk eskaini nahi dizkiet *nere kuadrilakuei*. Urteetan zertan lan egiten nuen oso argi ez zuten horiei, hemen erantzuna. Ordua zuan, ezta! Eta bertatik aipamen berezia sor diot *agur bat, ate bat zabaltzea edo ixtea dela* erakutsi zidan lagunari, eskerrik asko bihotzez Amaia Zaitegi!

Txostena egiteko unea, denboran tesiko momentu laburrena izan bada ere, ez da errazena izan. Eta hori posible izatea egin dutenak dira une honetan eskertu gura ditudanak, beraiek izan baitira nire bizitzako altxorrik preziatuenak, modu batean edo bestean, zaindu eta haien premiak asetu dituztenak. Hortaz, mila esker ama, aita, Aintzane eta Rikardo, munduko aitxitxa - amama onenak zarete. Mila esker, baita ere tarte horretan nire alaben kanpo espazioko jolas soziala aberatsagoa egin duten horiei: June eta Lander; Jakes eta Yaret; Ainere eta Hodei; Unai eta Sare; eta Unax. Eta nola ez haien guraso diren "ondo bizi" guztiei, zuek egin duzuelako Unai eta biontzat prozesu hau eramangarriagoa eta alaiagoa izatea.

Eta amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet egunerokotasunean nire ondoan dauden eta lan hau egiteko ezinbesteko babes emozionala emandako horiei: Unai, Bidane eta Suari, alde batetik; eta bestalde, eta ez horregatik garrantzi gutxiagorekin, aita, ama eta nire ahizpei. Ate hau ixtea edo zabaltzea lortu badut, zuei esker izan da. Eskerrik asko, bihotzez.

LABURPENA

Doktorego-tesi honen abiapuntua izan da ebidentzia enpirikoak eskaintzea Haur Hezkuntzako kanpo espazioak baliabide pedagogiko gisa haurren garapen osasuntsurako daukan garrantzia aitortzeko.

Zehazki hiru izan dira ikerketa honen helburuak. Lehendabizikoa izan da Haur Hezkuntzako kanpo espazioen diseinua eta erabileraren ezagutzea, eta horrela, bere kalitate orokorrari lehen hurbilpen bat egitea. Bigarren helburua izan da, kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzea. Gainera, ikerketetan gehiegi joratu ez den aldagai bat dela ikusita, ezagutu nahi izan da generoaren arabera ezberdintasunik ote dagoen. Eta azkenik, hirugarren helburua izan da aurreko helburuetan izandako emaitzetan oinarrituta, Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatzea, gauzatzea eta emaitzak ebaluatzea.

Diseinuaren eta erabileraren azterketatik abiatuta, ikerketaren lehendabiziko emaitzek agerian utzi zuten aztertutako kanpo espazioen diseinu gehienak kirolean (futbolean eta saskibaloian, besteak beste) oinarritzen zirela. Erabilerari dagokionez, irakasleei egindako elkarrizketek erakutsi zuten kanpo espazioan emandako denbora hartzen zela atsedenerako edo mugimendu beharri erantzuteko tartetzat. Kalitate orokorrari bagagozkio, emaitzek aditzera eman zuten kalitate ertainekoak zirela.. Kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioari dagokionez, espero bezala, emaitzek agerian utzi zuten zenbat eta jolas sozial gehiago, orduan eta inplikazio maila altuagoa dagoela. Gainera, talde jolasean gehien aritutako hurrek inplikazio maila altuagoa erakutsi zuten bakarkako jolasean eta paraleloan aritu zirenek baino. Jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzeaz gain, ikerketa honetan balizko genero ezberdintasunik ezagutu nahi izan ziren. Espero bezala, ez zen neska eta mutilen arteko ezberdintasunik aurkitu kanpo espazioko inplikazio mailan. Edonola ere, talde jolasaren

frekuentzia nesken artean mutilen artean baino txikiagoa izan bazen ere, ikusi da nesken artean zenbat eta talde jolas maiztasun handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela inplikazioarekiko duen efektu positiboa. Azkenik, zenbait ikastetxetako kanpo espazioen diseinuetan egindako berrikuntzek aditzera ematen zuten nabarmen hobetu zirela bertako jolasteko eta ikasteko eszenatokiak eta ikastetxeetako kanpo espazioetako programa.

Emaitza horiek ardatz hartuta, iradokitzen da kanpo espazioa Haur Hezkuntzarako goi mailako baliabide pedagogikotzat hartzeko beharra. Ildo horretatik, aldarrikatzen da haurren jolaserako eta elkarrekintzarako aukera anitzak eskaintzen dituzten testuinguru naturalak sustatzea, modu horretan, neska eta mutilen partaidetza eta inizatiba ere bultzatzeko. Kanpo espazioa haurren garapen osasuntsurako baliabide bihurtzeko prozesuan, beharrezkotzat hartzen da Hezkuntza komunitate osoaren partaidetza.

Abstract

The present doctoral thesis started from the interest to find empirical evidence of the importance of outdoor space as a pedagogical resource in Early Childhood Education for the development of child wellbeing.

Three are the objectives of the present study. The first one consists on knowing more about the design and use of the outdoor space of Early Childhood Education, and thus, obtain a general representation of the its quality. The second objective is to examine the relationship between social play and involvement in school's outdoor space. In addition, considering the few studies about school outdoor space carried out from a gender perspective, the purpose is to examine the differences, if any, between boys and girls as regards the above mentioned variables. Finally, based on the results obtained in the first and second objectives, this doctoral thesis aims at applying improvements in several Early Childhood Education outdoor spaces. Moreover, results of the practical application will also be evaluated.

In regards to the first objective, results show that most schools' outdoor spaces are designed to practice common sports (football, basketball, etc.).

Furthermore, in the interviews conducted with the teachers, the idea that students should use outdoor spaces to run and “get tired” was highlighted. It should also be noted that the overall quality of outdoor spaces is moderate. As far as the second objective is concerned, results indicate a close relationship between social play and involvement; i.e. the greater the social game is, the higher the level of involvement is. It should be pointed out that children who present a greater group play show a higher implication than those that show a greater solitary game or parallel game. Concerning gender, no differences were found between boys and girls in the variables examined in the present study. Besides, results depict that girls show a lower frequency of group play than boys. However, it should be noted that in the case of girls there is a positive effect on implication when their frequency of group play is higher. Finally, a positive effect on the quality of several schools’ outdoor space was found as a consequence of the improvements applied. In fact, play and learning spaces as well as the program improved noticeably.

The results obtained in this study highlight the significance of outdoor space for the positive development of boys and girls. Hence, we emphasise the importance of considering outdoor spaces as first hand educational resources. In the same vein, we believe that the use of external spaces that include equipment and materials to promote interactions and types of play must be fostered. Moreover, the latter should be located in natural environments and should offer a wide range of proposals to encourage participation and personal initiative of children. However, these changes require children, families and the community to get involved in the process.

El punto de partida de esta tesis-doctoral devino del interés por hallar evidencias empíricas de la importancia del espacio exterior como recurso pedagógico en Educación Infantil para el desarrollo del bienestar infantil.

Tres son los objetivos del presente estudio. El primero de ellos consiste en conocer el diseño y la utilización del espacio exterior de Educación Infantil y, de este modo, obtener una representación general de la calidad del mismo. El segundo objetivo pretende examinar la relación entre el juego social y la implicación en el espacio exterior escolar. Además, teniendo en cuenta que se han realizado escasos estudios con perspectiva de género en el espacio exterior escolar, se trata de conocer si existen diferencias entre los niños y las niñas en dichas variables. Por último, partiendo de los resultados obtenidos en la consecución de los dos objetivos anteriores, la presente tesis doctoral tiene como objetivo llevar a cabo una aplicación práctica de mejora del espacio exterior escolar de Educación Infantil y evaluar sus resultados.

En lo que se refiere al primer objetivo, los resultados ponen de manifiesto que la mayoría de los espacios exteriores escolares están diseñados para la práctica de deportes mayoritarios (fútbol, baloncesto, etc.). En las entrevistas realizadas al profesorado, en general, muestran la percepción de que los espacios exteriores han de usarse para que el alumnado se “canse”, se desfogue y corra. Cabe señalar que la calidad general del espacio exterior escolar es moderada. Por otra parte, se ha hallado una estrecha relación entre el juego social y la implicación; contra mayor es el juego social, mayor es el nivel de implicación. Cabe matizar que los niños que presentan un mayor juego grupal, muestran una mayor implicación que aquellos que manifiestan un mayor juego solitario o juego paralelo. En lo que se refiere a las diferencias de género en las variables implicadas en el estudio, cabe señalar que, tal y como se esperaba, no se encuentran diferencias en la implicación en el espacio exterior escolar entre los niños y las niñas. No obstante, se observa que las niñas muestran una menor frecuencia de juego grupal que los niños, aunque cabe señalar que, en el caso de las niñas, a mayor frecuencia de juego grupal, mayor es el efecto positivo del mismo sobre la implicación. Por último, las acciones de mejora llevadas a cabo en los espacios exteriores de varios colegios muestran que tiene efectos positivos sobre la calidad del espacio exterior escolar puesto que tanto los espacios de juego y aprendizaje, así como el factor programa mejoraron notablemente.

Los resultados obtenidos en este trabajo permiten suscribir la importancia que tiene el espacio exterior escolar para el desarrollo positivo de los niños y las niñas, por lo que abogamos por enfatizar la importancia de considerar el espacio exterior como un recurso educativo de primer orden. Del mismo modo, consideramos que se han de proveer espacios exteriores que incluyan equipamientos y materiales que fomenten diversas interacciones y tipos de juego, que estén situados en entornos naturales y que oferten un gran abanico de propuestas e incentiven la participación y la iniciativa personal de los niños y las niñas. Estos cambios necesitan de la participación de todos, incluyendo a los propios niños, a las familias y a la comunidad.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	21
2. ARAZOAREN PLANTEAMENDUA, HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	31
2.1. Arazoaren planteamendua	33
2.2. Helburuak eta hipotesiak	35
3. METODOA	37
4. EMAITZEN LABURPEN OROKORRA	55
4.1. Haur Hezkuntzako kanpo espazioen diseinua eta erabilera eta kalitate orokorraren lehen hurbilpena	57
4.2. Haur Hezkuntzako kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa eta generoaren araberako desberdintasunak	64
4.3. Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatzea, gauzatzea eta ebaluatzea	70
5. ONDORIOAK	74
5.1. Kanpo espazioaren diseinua eta erabilera	75
5.2. Haurraren jolas soziala eta inplikazioa kanpo espazioan	77
5.3. Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzea	80
5.4. Lanaren mugak eta etorkizunerako ildoak	82
6. ARGITALPENAK	85

6.1. Tatak (In-recs, 4. kuartila, Inpaktua: 0.00): Ikastetxeetako kanpo espazioen kalitatea Haur Hezkuntzan	88
6.2. Early Education & Development (JCR, 2. kuartila, Inpaktua: 1.183): Preschool children's social play and involvement in the outdoor environment	109
6.3. Participación Educativa (In-recs, 2. kuartila, Inpaktua: 0.085): Mejora del espacio exterior desde la participación comunitaria	130
7. Erreferentzia bibliografikoak	141

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula	Metodoa helburuen arabera antolatuta	40
2. taula	Kanpo espazioko kalitatearen batez bestekoak eta desbideratze tipikoak	57
3. taula	Kanpo espazioaren kalitate orokorra	60
4. taula	Batez besteko puntuazioak eta desbideratze tipikoak jolas sozial motan eta inplikazioan	65
5. taula	Batez bestekoak, desbideratze tipikoak eta aldagaien arteko korrelazioak.	66
6. taula	Erregresio analisisa jolasa, sexua eta adina aldagai aurrealetzat hartuz eta inplikazioa menpeko aldagai bezala	67

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia	Kanpo espazioaren kalitatea dimentsioka	59
2. irudia	Talde jolasaren eta generoaren arteko interakzioa inplikazioan	68
3. irudia	Jolasteko eta Ikasteko Eszenatokien portzentajeen batez bestekoak esku-hartzearen aurretik eta ondoren	71
4. irudia	Programaren portzentajeen batez bestekoak esku-hartzearen aurretik eta ondoren	72



1. Sarrera

1. SARRERA

Haurren lehendabiziko urteak gako dira pertsona gisa garatzeko, 0-6 urte bitartean errotzen baitira pertsonaren nortasunaren oinarriak (Barandiaran eta Larrea, 2016; van den Akker, Dekovic, Asscher eta Prinzie, 2014). Adin tarte horretan bizitakoak eragin handia dauka pertsonaren garapenaren norabidean. Lehendabiziko urte horiek familian eta eskolan ematen dituzte haur gehienek. Horrenbestez, bi testuinguru horietan ematen dira bizipen horiek, azken hamarkadetan ohikoa bihurtu baita Haur Hezkuntzan ekitea ibilbide akademikoari. Joera horren erakusle, Europar Batasunak aurreikusten du 2020 urterako haurren %95 Haur Hezkuntzan matrikulatuta egotea (European Commission/EACEA/Eurydice, 2013). Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2 urteko ia haur guztiak joaten dira eskolara (237/2015 Dekretua). Beraz, pertsonaren epe motzeko zein luzeko garapenari begira, 0-6 etapa gako den heinean, Haur Hezkuntza bera ere gaketzat hartu behar da (Camilli, Vargas, Ryan eta Barnett, 2010; Duncan eta Magnusson, 2013; Pianta, Barnett, Burchinal eta Thornburg, 2009; Reynolds, Temple, Ou, Arteaga eta White, 2011; Vandell, Burchinal eta Pierce, 2016).

Haur Hezkuntzaren garrantziaz ohartuta, ikerketa askok jarri dute arreta eskolen eta haurren arteko erlazioan (Belsky, 2006; Clarke-Stewart eta Allhusen, 2005; Cryer, 2006; Huntsman, 2008; Vandell, Belsky, Burchinal, Vandergrift eta Steinberg, 2010; Vermeer, Groeneveld, Larrea, van IJendoorn, Barandiaran eta Linting, 2010). Oro har, ikerketa gehienak bat datoz Haur Hezkuntza haurren garapenarentzat onuragarria izan daitekeela aitortzen, beti ere eskola horretako eskaintza edo kalitatea egokia bada (Cassidy, Hestenes, Hegde, Hestenes, & Mims, 2005; Vandell et al., 2010; Vandell et al., 2016). Haurari eskaintza egokia egiten dioten zentroetan, haurrak ongizate maila handiagoa, oreka sozio-emozional hobetua eta trebetasun kognitibo eta komunikatibo hobekituak dituzte (Ärlemalm-Hagsér, 2006; Gialamas, Miffinity, Sawyer, Zubrick eta Lynch, 2014; Pinto, Pessanha eta Aguiar, 2013).

Haur Hezkuntzako eskaintza egokia definitzean, oso bestelako aldagaiak aintzat hartu dira. Cryerek (2006) iradokitako sailkapenari jarraiki, aldagai horiek egiturazkoak edo prozesuzkoak dira. Egiturazko aldagaietan daude haur kopurua, haur: irakasle ratioa, gelako neurria, irakaslearen prestakuntza eta eskarmentua besteak beste (Burchinal, Roberts, Riggins, Zeisel, Neebe, & Bryant, 2000; De Shipper, Riksen-Walraven eta Geurts, 2006; Iluz, Adi-Japha eta Klein, 2016; NICHD Early Child Care Research Network, 2005). Prozesuzkotzat hartzen dira berriz, haurrak bere eskolako ingurunearekin dauzkan elkarrekintzak eta harremanak eta curriculumaren baitan kokatutako denbora eta espazioaren antolaketak edo hautu metodologikoak (Albin-Clark, Shirley, Webster eta Woolhouse, 2016; Barandiaran, Muela, López de Arana, Larrea eta Vitoria, 2015; Page eta Elfer, 2013; Venturelli eta Cigala, 2015).

Aldagai mota biak barne hartuta, aditu askok aldarrikatzen dute Haur Hezkuntzaren helburu nagusia dela haurarentzat jolas positibo, gustagarri eta aberatserako testuinguru egokia eskaintzea (Fisher, Hirsh-Pasek, Golinkoff, Singer eta Berk, 2011). Nolabait, egiturazko eta prozesuzko aldagai horiek jolaserako proposak izatean kokatzen dute Haur Hezkuntzaren arrakasta. Ideia horren atzean dago jolasa Haur Hezkuntzako etapa honetan funtsezkoa dela ulertzea, ikaskuntza eta garapenerako giltzarri dela iritzita (Gunnarsdottir, 2014; Karila, 2012; Pellegrini, 2011; Rubin, Fein eta Vandenberg, 1983; Smith eta Hart, 2004).

Ideia horiek guztiak bilduta, Haur Hezkuntzan, eskaini behar dira haurraren jolaserako testuinguru egokiak eta horretarako, ezinbestekoa da egiturazko zein prozesuzko aldagai horiek guztiak zaintzea. Edozein kasutan, Haur Hezkuntzako testuinguruaren egokitasuna eta bertako jolasa edo garapenaren beste dimentsioren bat aztertzerakoan, aditu gehienek gela barrura mugatu dituzte beren lanak (Ernst, 2014). Gela mailako azterketak ohikoak izan diren bitartean, ez dira horren ugariak izan Haur Hezkuntzako kanpo espazioetan kokatutako ikerketak. Euskal Herrian bertan ere, Haur Hezkuntzan egindako ikerketa gehienek, doktorego-tesiek barne, barruko espazioan gertatutakoak izan dituzte aztergai nagusitzat (Elizalde, 1998; Herrán, 2005; Jauregi, 2009; Larrea, 2007). Hain justu, horixe bera izan da doktorego-tesi honen abiapuntua. Haurraren garapen osasuntsurako Haur Hezkuntza gako dela jakinda, ikerketa honek arreta jarri du orain

arte horren sakon aztertu ez den kanpo espazioan. Azken batean, ikerketa honen lehendabiziko helburua izan da Haur Hezkuntzako kanpo espazioen diseinua eta erabilera ezagutzea eta, horrela, bere kalitate orokorraren lehen hurbilpen bat egitea. Modu horretan, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako zentroetan nolako kanpo espazioak dauden eta nolako erabilera ematen zaien identifikatu nahi izan da.

Gure testuinguruko kanpo espazioen diseinua eta erabilera ezagutzea garrantzitsua da ikerketa askok defendatzen dutelako diseinuak eta erabilerak eragin dezaketela haurraren garapenean (Moser eta Martinsen, 2010). Adibidez, kanpo espazioan aritzeak susta dezake haurraren gaitasun soziala (Veiga, Leng, Cachucho, Ketelaar, Kok, Knobbe, & Rieffe, , 2016), mugimenduzko trebetasunak eta osasun fisikoa (Cosco, Moore eta Smith, 2014; Gray et al., 2015) eta kidetze jokabideen areagotzearekin, gutxitu ditzake oldarkortasuna eta gatazkak (Blanchet-Cohen eta Elliot, 2011; Ouvry, 2003). Halaber, beste lan batzuek ondorioztatu dute kanpo espazioak eragin positiboa izan dezakeela haurraren arreta mailan (Martensson et al., 2009), sormenean eta irudimenean (Canning, 2010), naturarekiko errespetuan eta naturarekin lotutako edukien ikaskuntzan (Klaar eta Öhman, 2014).

Kanpo espazioa onuragarria izateko, bere diseinua eta haurrek ematen dioten erabilera garrantzitsuak dira. Horregatik, adituek aldarrikatzen dute Administrazioak zein eskolek, beren curriculum eta aurreikuspenetan, garrantzi handiagoa ematea kanpo espazioari (DeBord, Hestenes, Moore, Cosco eta McGinnis, 2005; Kos eta Jerman, 2013). Are gehiago, kanpo espazioa haurraren jolasa, ikaskuntza eta garapena sustatzeko testuinguru aproposa dela iritzita, gomendatzen da goi mailako baliabide pedagogikotzat hartzea (Moser eta Martinsen, 2010). Beren ustetan, kanpo espazioari balioa emateak dakar kanpo espazioaren diseinu egokiagoa. Era berean, kanpo espazioan haurrari eskaintza egokia egiteko, autore askok uste dute bere diseinuak haurrari ahalbideratu behar diola bere trebetasun psikomotoreak frogan jartzea, eskaini behar dizkiola hainbat mailatako erronkak, baimendu behar diola naturarekin harremana izatea eta bermatu behar duela sarbide erraza haur guztientzat (MacQuarrie, Nugent eta Warden 2015; Moore, 2014). Ildo beretik, kanpo espazioaren diseinuak baimendu

beharko luke hurrek modu ezberdinean bizi ahal izatea bertako eskaintza eta euren jolasean arriskuak hartu ahal izatea (Little, Sandseter eta Wyver, 2012), modu horretan, hurrek kanpo espazioa erakargarritzat, estimulagarritzat eta erronketarako gune apropostzat hartzeko.

Beraz, ikerketa honen lehendabiziko helburuarekin, gaur egun nolako kanpo espazioen diseinuak eta erabilerak dauzkagun identifikatzeaz gain, aztertu izan da gure errealitateak nazioarteko aditu horiek zehaztutako irizpideekin noraino bat egiten duen. Argitalpen bidezko doktorego-tesi honetako lehendabiziko artikulua helburu horri atxikitzen zaio. Gaur egungo kanpo espazioen nolabaiteko errealitatea deskribatzen da Tantik aldizkarian argitaratutako "Ikastetxeetako kanpo espazioen kalitatea Haur Hezkuntzan" artikuluan.

Edozein kasutan, ikerketa honekin, kanpo espazioen diseinuaren eta erabileraren berri izateaz gain, aztertu nahi izan da bertako jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa eta, bidenabar, ezagutu nahi izan da generoaren arabera ezberdintasunik ote dagoen. Alde batetik, jolasa aztergaitzat hartu da edozein kulturatan 0-6 etapako garapenaren adierazle nagusi dela iritzita (Roopnarine, 2011). Azken batean, jolasa garapenaren erdigunean kokatzen da, trebetasun linguistiko, kognitibo, motor eta sozialak behar dituen heinean (Pellegrini, 2011; Rubin et al., 1983; Smith eta Hart, 2004). Bere izaeragatik, hainbat ikuspegitatik so egin zaio jolasari eta jolasa bera sailkatzeko hainbat modu izan dira, garapen kognitiboaren ikuspegitik (Piaget, 1962; Smilansky, 1968) edo ikuspegi sozialagotik (Parten, 1932) adibidez. Dena den, jolaserako testuinguru sozialak diren heinean eta hurren arteko elkarrekintzak bertan maiz ematen direnez, Haur Hezkuntza eta bertako kanpo espazioak toki egokiak dira jolas soziala aztertzeko (Coplan, Rubin eta Findlay, 2006). Horregatik, doktorego-tesi honetan zehazki jolas sozialean jarri da fokua.

Jolas soziala garapenaren fenomeno konplexutzat hartzen da, barne hartzen dituelako gizabanakoarekin lotutako aldagaiak (komunikatzeko trebetasunak eta auto-erregulazio emozionala kasu), bikote edo talde prozesuak (irakasleekin edo berdinkideekin harremanak) eta testuinguru sozialaren dimentsioak (komunitate kulturala, testuinguruaren

giro soziala eta emozionala) (Howes, 2011). Jolas soziala ematen da haurra motibatuta dagoenean beste norbaitekin jolasa partekatzeko, gai denean emozionalki autoerregulatzeko, eta trebetasuna daukanean bestearikiko elkarrekintzari hasiera emateko eta bestearen erantzuna jasotzeko (Coplan et al., 2006). Horregatik, jolas soziala haurraren gaitasun sozialaren islatzat hartzen da (Howes, 2011). Gainera, jolas sozialak baimentzen du haurren jokabideen egokitzea (Pellegrini, 2011), besteen ikuspegia jasotzea, elkarrekintzarako moduak, ezagutza eta trebetasunak garatzea (Howes, 2011; Rubin et al., 1983), eta ulermen eta komunikaziorako trebetasunen garapena eskatzen duen jolasaren esanahi sinbolikoa partekatzea (Howes, 2011). Hortaz, jolas soziala haurraren garapen psikosozialaren adierazletzat hartzen da (Coplan et al., 2006; Coplan, Ooi, Rose-Krasnor eta Nocita, 2014; Rubin, Coplan eta Bowker, 2009).

Jolas soziala haurraren garapenaren adierazle nagusietako bat izanda, Haur Hezkuntzan ere aztertu izan da. Kontua da horietako oso ikerketa gutxi kokatu direla kanpo espazioan (Ernst, 2014; Veiga et al., 2016). Hala ere, frogatu da jolas sozialaren presentzia handiagoa dela Haur Hezkuntzako kanpo espazioan, barrukoan baino (Bar-Haim eta Bart, 2006; Hartle, 1996; Henniger, 1985; Shim, Herwig eta Shelley, 2001). Are gehiago, jolas sozialaren presentzia handiagoa izateaz gain, jolasa bera ere anitzagoa eta konplexuagoa da kanpoan, barruan baino (Shim et al., 2001). Edozein kasutan, ez dira gehiegi kanpo espazioko jolas soziala aztertu duten ikerlariak eta Euskal Herriaren kasuan, ez da horrelako lanik aurkitu.

Jolas sozialarekin batera, haurraren inplikazioa aztertu da ikerketa honetan. Laevers (1994) garatutako inplikazioaren kontzeptua baliagarria da haurraren aktibitatearen ezaugarriak ezagutzeko. Haurrari egindako eskaintzaren nolabaiteko feedbacka ematen du, haurraren arreta jarrita bere testuinguruari egiten dion erabilera adierazten baitu (Laevers eta Heylen, 2003). Inplikazio maila handiko haurrak arreta handia dauka egiten ari den horrekiko, interesa, jakin-mina eta ekintzarekiko jarrera liluratuta dauzka eta sakontasuna adierazten du egiten ari den horrekiko. Bere gorputz adierazpenak aktibitate mental sakona erakusten du eta sentsazio eta esanahi askoko esperientzia bizitzen ari dela adierazi (Laevers, 1994, 2005).

Inplikazioaren kontzeptua ez da garapen mailarekin lotzen (Laevers, 2003), lotuagoa baitago une jakin batean ematen den aktibitatearekin (Csikszentmihalyi, 1997). Haur Hezkuntzako kanpo espazioetako aktibitatearik nagusiena jolasak behar lukeenez, inplikazio altuko jolasak eskatuko luke haurraren esplorazio handia eta horrekiko bere erabateko parte-hartze sakona. Inplikazio maila horretako jolasa hartzen da haurra garatzeko eta ikasteko une apropostzat eta, horrenbestez, era horretako jolasa da haurrari egiten zaion eskaintza garapena eta ikaskuntza sustatzen duen ebaluatzeko bidea (Laevers eta Heylen, 2003). Jolasarekin gertatu bezala, inplikazioa aztergai izandako ikerlari gehienek nagusiki Haur Hezkuntzako barruko espazioan aztertu dute haurren aktibitatea (Barandiaran et al., 2015; Doumen, Koomen, Buyse, Wouters eta Verschueren, 2012; Ebbeck et al., 2012; Ulich eta Mayr, 2002; Woods, 2016).

Hortaz, doktorego-tesi honen bigarren helburua berrartuz, ikerketa honetan kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertu nahi izan da. Gainera, ikerketetan gehiegi jorratu ez den aldagai bat dela ikusita, ezagutu nahi izan da generoaren arabera ezberdintasunik ote dagoen. Helburu horrekin lotutako datu guztiak doktorego-tesi honen bigarren argitalpenean plazaratzen dira. Artikulu horrek "Preschool children's social play and involvement in the outdoor environment" du izena, Early Education and Development aldizkariak argitaratuta.

Orain arteko helburuek gure testuinguruko kanpo espazioetako errealitatea ezagutzea ahalbideratu dute, gutxienik diseinu eta erabilerari dagokionez, eta errealitate horretan emandako jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzea baimendu dute, baita generoaren arabera ere. Doktorego-tesi honen egileak eta ikerketa kokatuta egon den taldeak beti gogoan izan dugu lan honen azken jomuga zein zen. Gure testuinguruko Hezkuntza sistema hobetzeko asmo irmoarekin, ikerketak aplikatua izan behar du. Horregatik, doktorego-tesi honen hirugarren helburua izan da aurreko helburuetan izandako emaitzetan oinarrituta, Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatzea, gauzatzea eta emaitzak ebaluatzea.

Hirugarren helburu hori aurrera eramateko, hobetsi zen berrikuntzan parte hartzea benetan horretarako interesa zeukaten eskolak (Miranda, 2002). Halaber, bultzatu zen

eskoletako komunitate osoa inplikatzeari, berrikuntza denboran sostengarria izateko, eskolen kanpo espazioaren erabilera egiten duten pertsona guztiek prozesuan parte hartu behar dute (Bolívar, 2014; Castro, Expósito, Lizasoain, López eta Navarro, 2014). Alde batetik, kanpo espazio horien erabilera sakonena egiten duten haurrak entzun behar dira (Tonucci, 2007), adierazteko eskubidea baitute (Porlán eta de Alba, 2012), etapa honetako haurren garapen ezaugarrietara egokituta. Bestetik, familien parte-hartzea gako da, haurren ezagutza izateaz gain, kanpo espazioak ere erabiltzen dituztelako eta proiektuan parte-hartzeak eskola-kultura eta eskola-nortasuna sustatzen duelako (Sánchez eta López, 2010). Gainera, berrikuntzan parte-hartzen duen zuzendaritzaren inplikazioa funtsezkoa da (Tschannen-Moran, Parish eta Dipaola, 2006). Argudiatzen da inplikaturako zuzendaritzak susta dezakeela bertako profesionalen konpromisoa eta aberastu dezakeela hala beren garapen profesionala (Imbernon, 2007), nola eskolako komunitate osoaren garapena eta ikaskuntza (Miranda, 2002).

Hortaz, irizpide horiek aintzat hartuta, Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatu, gauzatu eta beren emaitzak ebaluatu nahi izan dira doktorego-tesi honetako hirugarren helburuan. Helburu horri lotzen saio Estatuko Eskola Kontseiluak eta Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioak argitaratzen duen Participación Educativa aldizkarian plazaratutako "Mejora del espacio exterior escolar desde la participación comunitaria" artikulua.

Hiru helburu eta hiru helburu horiekin lotutako argitalpen bana dira doktorego-tesi honen oinarriak. Hurrengo orrietan, helburu horien bueltan egindako lana zehaztasun handiagoz aditzera emango da, arazoaren planteamendua, helburuak eta hipotesiak aditzera emanez, helburu bakoitza lortzeko jarraitutako metodoa azalduz, emaitzen berri emanez eta eztabaida eta ondorioak argituz. Halaber, hiru artikuluen aurkezpena ere egingo da.



2. Arazoaren planteamendua, helburuak eta hipotesiak

2.1. Arazoaren planteamendua

2.2. Helburuak eta hipotesiak

2. ARAZOAREN PLANTEAMENDUA, HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

2.1. Arazoaren planteamendua

Sarreran adierazi bezala, Haur Hezkuntza etapa garrantzitsua da pertsonaren garapenari begira (Camilli et al., 2010; Duncan eta Magnusson, 2013; Pianta et al., 2009; Reynolds et al., 2011; Vandell et al., 2016). Horregatik, garrantzi handia dauka haurri egiten zaion eskaintzak (Cassidy et al., 2005; Fisher et al., 2011; Vandell et al., 2010; Vandell et al., 2016), eragina izan baitezake gainera haurren garapenaren hainbat dimentsiotan (Ärlemalm-Hagsér, 2006; Gialamas et al., 2014; Pinto et al., 2013). Arestian adierazi bezala, lan askok arreta jarri dute hala Haur Hezkuntzako eskaintzaren aldagai askotan, nola haurren garapenaren hamaika dimentsiotan. Are gehiago, ikerketa ugari aztertu izan dute eskaintzaren eta garapenaren arteko lotura (Belsky, 2006; Clarke-Stewart eta Allhusen, 2005; Cryer, 2006; Huntsman, 2008; Vandell et al., 2010; Vermeer et al., 2010). Hala ere, ikerketa gehienak Haur Hezkuntzako geletan gertatutakoak aztertzeraz mugatu dira. Ondorioz, ez dira horren ugariak Haur Hezkuntzako kanpo espazioan kokatutako ikerketak (Ernst, 2014). Euskal Herrian kokatutako lanei bagagozkie, zeharka kanpo espazioa aztertutako lanak dauden arren (Larrea, 2007; Jauregi, 2009), ez da aurkitu kanpo espazioan berariaz lekututako azterlanik.

Bestalde, jolasa 0-6 etapako garapenaren adierazle nagusi dela ulertuta, ikerketa ugari jarri dute arreta garapenaren erdigunean kokatutako fenomeno honetan (Coplan et al., 2006; Howes, 2011; Pellegrini, 2011; Roopnarine, 2011; Rubin et al., 1983; Smith eta Hart, 2004). Halaber, ikerketa askok jolas soziala izan dute aztergai, jolas mota honek bere baitan hartzen dituelako oso bestelako trebetasunak (Coplan et al., 2006; Coplan et al., 2014; Howes, 2011; Rubin et al., 1983; Rubin et al., 2009).

Edozein kasutan, ez dira horrenbeste berariaz jolas soziala kanpo espazioan aztertu duten lanak (Ernst, 2014; Veiga et al., 2016). Antzeko zerbait gertatzen da haurren inplikazioaren azterketarekin. Lan gehienak Haur Hezkuntzako geletan lekutu dira (Barandiaran et al., 2015; Doumen et al., 2012; Ebbeck et al., 2012; Woods, 2016) eta, ondorioz, gutxi dira kanpo espazioan haurren inplikazioa aztergai izan duten ikerketak (Ulich eta Mayr, 2002). Are gehiago, ez da aurkitu inplikazioaren eta jolas sozialaren erlazioa aztertu duen lanik, ezta erlazio horretan genero ezberdintasunetan arakatu duen ikerketarik.

Egoera horren aurrean, doktorego-tesi honen bitartez, ekarpena egin nahi da ikerketa eskasia horretan. Batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobeto ezagutu nahi dira, beren diseinua eta erabilera aztertuz eta beren kalitateari hurbilpena eginez. Bestetik, kanpo espazioan kokatutako jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertu nahi da, eta generoaren arabera ezberdintasunik dagoen ezagutu. Azkenik, lan honen atzean dagoen taldearen Hezkuntza berrikuntzarekiko konpromisotik, ateratako emaitzetan oinarrituta, inguruko kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatu, gauzatu eta emaitzak ebaluatu nahi dira.

2.2. Helburuak eta hipotesiak

Gaiaren egoera aintzat hartu eta gero, ondoko helburu hauek atxikitzen zaizkio doktorego-tesi honi:

1. **helburua:** Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren diseinua eta erabilera ezagutzea eta bere kalitate orokorraren lehen hurbilpen bat egitea.
2. **helburua:** Haur Hezkuntzako kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzea eta generoaren araberako ezberdintasunik ote dagoen ezagutzea.
3. **helburua:** Aurreko helburuetan izandako emaitzetan oinarrituta, Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatzea, gauzatzea eta beren emaitzak ebaluatzea.

Jarraian, helburu horiek aintzat hartu eta gero egindako hipotesien berri emango da:

1. **hipotesia.** Espero da Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren diseinuak nagusiki ardatz moduan hartzea kirol estereotipatuetan oinarritutako ekintzak, naturarekin kontaktu zuzenik gabe. Horrez gain, espero da jolaserako, garapenerako edo ikaskuntzarako proposamen urriak dituen espazio bat aurkitzea. Kanpo espazioaren erabilerari dagokionez, espero da hurrek espazioaren erabilera urria egitea, hala denboran nola espazioan. Era berean, espero da irakasleriak kanpo espazioaren eduki pedagogiko eta hezigarriaz balioespen urria izatea. Azkenik, aipatutako diseinu eta erabilera kontuan izanik, espero da kanpo espazioaren kalitate orokorra moderatua izatea.

2. hipotesia. Haur Hezkuntzako kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioari dagokionez, espero da jolas sozialaren (bakarkako jolasa, jolas paraleloa edo talde jolasa) jarduera handiagoa, inplikazio maila handiago batekin erlazionatzea. Horrez gain, espero da talde jolas gehiago erakusten duten hurrek inplikazio maila handiagoa erakustea bakarkako jolasa edo jolas paralelo gehiago erakusten dutenek baino. Bestalde, ez da espero kanpo espazioko inplikazioan genero ezberdintasunik aurkitzea, ezta jolas sozial motaren eta inplikazioaren arteko erlazioan efektu moderatzailearik.

3. hipotesia. Bideratutako esku-hartzearen ondorio gisa, Haur Hezkuntzako kanpo espazioko kalitate orokorra hobetzea espero da; ikasteko eta jolasteko eszenatokien eta programaren dimentsioen kalitatean puntuazio altuagoak lortuz.



3. Metooda

3. METODOA

Eskuartean daukagun lanaren helburuak izaera eta asmo desberdinek bultzatuta gauzatu dira:

Lehenengo helburuarekin, nahi izan da Haur Hezkuntzako kanpo espazioen diseinua eta erabilera ezagutzea eta bere kalitate orokorraren lehen hurbilpena egitea. Beraz, helburu horren izaera guztiz deskriptiboa izan da.

Bigarren helburuaren izaera aldiz, erabat inferentziala da eta aldez aurretik aipatu bezala, gura izan da Haur Hezkuntzako kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzea eta generoaren araberako ezberdintasunik ote dagoen ezagutzea.

Azkenik, azkenengo helburuak bestelako xede bat erakusten du, izaera aplikatuan funtsatuta. Hirugarren helburu horretan, dagoeneko azaldu bezala, helburuetan erdietsitako emaitzetan oinarrituta, Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatu, gauzatu eta emaitzak ebaluatu nahi izan dira.

Aipatutako hiru helburuen izaera eta asmoak aintzat hartuta, ikerketa honetan hainbat metodo ezberdinak erabili dira helburu bakoitza bideratzeko. Bestela esanda, helburu bakoitzari egokitutako metodoa jarraitu da. Hortaz, parte-hartzaileei, prozedurari eta tresnei dagokienez, ezberdintasunak daude helburuaren arabera. Aurrerago helburu bakoitza lortzeko jarraitutako metodoa zehaztasunez argituko bada ere, aurrerapen eta kokapen gisa, hurrengo taulan laburbildu da helburu bakoitzaren metodoa:

1. Taula

Metodoa helburuen arabera antolatuta

HELBURUA

1. Haur Hezkuntzako kanpo espazioen diseinua eta erabilera ezagutzea eta bere kalitate orokorraren lehen hurbilpen bat egitea

Parte-hartzaileak

- 19 kanpo espazio
- 5000 biztanle azpitiko herrietakoak: 6 kanpo espazio
 - 5000 - 10000 biztanle: 3 kanpo espazio
 - 10000 - 15000 biztanle: 7 kanpo espazio
 - 15000 biztanletik gorako herri edo hirietakoak: 3 kanpo espazio

1156 haur (598 neska eta 558 mutil), horietatik:

- 3-4 urte bitarteko 380 haur
- 4-5 urte bitarteko 372 haur
- 5-6 urte bitarteko 404 haur

51 irakasle (50 emakume eta gizon bakarra)

- 41.1 urteko batez besteko adinarekin ($DT= 12.3$)
- 14.6 urteko batez besteko eskarmentuarekin ($DT= 11.3$)
- 3-4 urteko haurren tutore: 17 irakasle
- 4-5 urtekoen tutore: 16 irakasle
- 5-6 urteko haurren tutore: 17 irakasle
- 3-6 urteko haurren tutore aldi berean: irakasle bakarra

Haurrek eskolan igarotako orduak egun bakoitzeko: 5, horietatik:

- 4 ordu eta 30 minutu gelan.
- 30 minutu kanpo espazioan.

METODOA

Prozedura

- 1. fasea*
- Ikastetxeetan proiektua aurkeztu
 - Haurrek ikerketa parte-hartzeko baimenak lortu
 - Datuen bilketa aurrera eramateko kronograma osatu ikastetxeekin
 - Datuak jasotzeko protokoloa sortu

- 2. fasea*
- Ikastetxearen deskribapena egiteko datuak jaso: audio, bideo eta argazkiak
 - Jasotako datuekin dokumentuak sortu: jolastokien planoak eta jolastokietan aurkitutako elementuen glosategia.

- 3. fasea*
- Kanpo espazioaren kalitate orokorra ebaluatu POEMS tresnaren bitartez

- 4. fasea*
- Ikastetxeetako txostenak osatu: emaitzak eta hobetzeko iradokizunak
 - Emaitzen berri emateko jardunaldia ospatu

Tresna

Ikastetxeetako Kanpo Espazioaren Ebaluaziorako Eskala (Preschool Outdoor Environment Measurement Scale, POEMS; DeBord, Hestenes, Moore, Cosco eta McGinnis, 2005)

2. Haur Hezkuntzako kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzea eta generoaren arabera ezberdintasunik ote dagoen ezagutzea

19 kanpo espazio

- 5000 biztanle azpitiko herrietakoak: 6 kanpo espazio
- 5000 - 10000 biztanle: 3 kanpo espazio
- 10000 - 15000 biztanle: 7 kanpo espazio

15000 biztanletik gorako herri edo hirietakoak: 3 kanpo espazio

173 haur (87 neska eta 86 mutil)

- 3-4 urte: 62 haur (32 neska eta 30 mutil)
- 4-5 urte: 58 haur (29 neska eta 29 mutil)
- 5-6 urte: 53 haur (26 neska eta 27 mutil)

51 irakasle (50 emakume eta gizon bakarra)

- 41.1 urteko batez besteko adinarekin ($DT= 12.3$)
- 14.6 urteko batez besteko eskarmentuarekin ($DT= 11.3$)
- 3-4 urteko haurren tutore: 17 irakasle
- 4-5 urtekoen tutore: 16 irakasle
- 5-6 urteko haurren tutore: 17 irakasle

3-6 urteko haurren tutore aldi berean: irakasle bakarra

Haurrek eskolan igarotako orduak egun bakoitzeko: 5, horietatik:

- 4 ordu eta 30 minutu gelan.
- 30 minutu kanpo espazioan.

1. fasea

- Ikastetxeetan proiektua aurkeztu
- Haurrek ikerketan parte-hartzeko baimenak lortu
- Haurren grabazioak egiteko kronograma osatu ikastetxeekin
- Haurrak grabatzeko protokoloa sortu

2. fasea

- Haurren kanpo espazioko jolasa behatu eta bideo grabazioen bitartez jaso:
 - Iraupena: 3 hilabete (Apiriletik ekainera bitartean)
 - HHko 2. zikloko maila bakoitzeko eta gela bakoitzeko 4 haur (2 neska eta 2 mutil)
 - Denbora: 24 minutu eguneko (Haur bakoitzaren jolasa 6 minutuz jaso)

Baldintzak:

- Ateri, 14-18°C
- 11.00-11.30 bitartean
- 30 min kanpo espazioan

3. fasea

- Grabazioak ikusi, aztertu eta ebaluatu POS eta LIS-YC tresnen bitartez

Jolasa Behatzeko Eskala (The play observation scale, POS; Rubin, 2001)

Haurren Inplikazioa Neurtzeko Leuven Eskala (Leuven Involvement Scale for Young Children, LIS-YC; Laevers, 1994; 2005)

3. Helburuetan izandako emaitzetan oinarrituta, Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatzea, gauzatzea eta beren emaitzak ebaluatzea

- 1001 haur: 3-6 urte bitartekoak

- 54 guraso

- 94 irakasle

1. fasea

- Ikastetxeei parte-hartzeko aukera luzatu
- Prozesu parte-hartzailearen diseinua egin
ikastetxeetan:

- Aurkezpena
- Ebaluazioa
- Hobekuntza posibleak identifikatu

2. fasea

- Proposamenen definizioak egin
- Lan taldeak osatu
- Hobekuntza proposamenak gauzatu

3. fasea

- Prozesu parte-hartzailearen ebaluazioa egin
- Gauzatutako berrikuntzak ebaluatu:

POEMSeko bi dimentsio:

- Ikasteko eta jolasteko eszenatokiak
- Programa

4. fasea

- Jardunaldia

Ikastetxeetako Kanpo Espazioaren Ebaluaziorako Eskala (Preschool Outdoor Environment Measurement Scale, POEMS; DeBord, Hestenes, Moore, Cosco eta McGinnis, 2005)

1. helburua: Haur Hezkuntzako kanpo espazioen diseinua eta erabilera ezagutzea eta bere kalitate orokorraren lehen hurbilpen bat egitea.

Parte-hartzaileak

Ikerketaren lehenengo helburua aurrera eramateko Gipuzkoako 19 kanpo espazio aukeratu ziren, parte hartzeko borondatea erakutsi zutenen artean. Kanpo espazio horiek izaera anitzeko ikastetxeetan kokatzen ziren. Are zehatzago, espazio horietatik 9 eskola publikoetan lekutzen ziren, tartean landa eremuan kokatutako eskola bat; 7 ikastolen elkartearen baitakoak ziren eta 3 ikastetxe erlijiosoetan zeuden.

Halaber, ikerketan parte hartu zuten 19 kanpo espazio horien erabilera egiten duten 1156 haur eta 51 irakasleek. Haurrei dagokienez, parte hartutako guztiak 3-6 adin tartekoak ziren; are zehatzago, 3-4 urte bitarteko 380 haur; 4-5 urteko 372 eta 5-6ko 404. 1156 horietatik, 598 haur neskek ziren eta 558 mutilak. Irakasleei dagokienez, 50 emakume eta gizon bakarra zeuden, 41.1 urteko batez besteko adinarekin ($DT = 12.3$) eta batez besteko 14.6 urteko eskarmentuarekin ($DT = 11.3$). 51 irakasle horietatik 17 profesional 3-4 urteko haurren tutore ziren eta 16 irakasle 4-5 urtekoen tutore. 5-6 urteko haurrekin, berriz, 17 irakasle ari ziren tutore lanetan eta, azkenik, irakasle bakarra ari zen 3-6ko haurrekin aldi berean.

Haur eta profesional horiek erabiltzen zituzten kanpo espazioak hainbat neurritako herrietan lekutzen ziren. Herri horietako biztanle kopurua aintzat hartzen badugu, sei kanpo espazio kokatzen ziren 5.000 biztanle azpitiko herrietan; hiru, 5.000 eta 10.000 biztanle arteko herrietan; zazpi kanpo espazio 10.000 eta 15.000 artekoetan, eta, azkenik, hiru 15.000 biztanletik gorako herri edo hirietan. Beraz, izaera ezberdineko herri txiki, ertain eta handietako kanpo espazioetako nolakotasuna eta bertan gertatzen diren jolas soziala eta inplikazioa aztertu dira ikerketa honetan.

Haurrek eguneko bost ordu igarotzen zituzten eskolan eta horietatik 30 minutu kanpo espazioan. Haurrak zein irakasleak haien prestutasunaren arabera aukeratu ziren.

Sinatutako baimenak jaso ziren haurren tutoreen partetik, zein eskolako irakasle eta administrazioaren partetik.

Prozedura

Lana hainbat fasetan bideratu da. Lehenik eta behin, gure eremu geografikoaren Haur Hezkuntzako kanpo espazioen lagin adierazgarria lortzeko asmoz, hainbat ikastetxetan aurkeztu zen proiektua. Zentroetako zuzendari eta Haur Hezkuntzako koordinatzaileekin bilerak burutu ziren eta ikerketaren nondik norakoak azaldu zitzaizkien.

Behin zentroen parte-hartzea baieztatu ostean, guraso edo lege tutoreei haurrek ikerketan parte hartzeko baimena eskatu zitzaien. Baimen horrek Datu Pertsonalen Babeserako Legeak (15/1999 Lege Organikoa, LOPD) zehaztutako irizpide guztiak aintzat hartzen zituen. Baimenak lortzarekin bat, datuen bilketa aurrera eramateko kronograma osatu zen ikastetxeekin.

Datuen bilketa horren baitan ikastetxe bakoitzean ondorengo datuak jaso ziren: Lehenik eta behin, jolastokiaren deskribapena jasotzen zuten audio eta bideo grabazioak egin ziren. Horrez gain, kanpo espazioei eta bertako elementuei argazkiak atera zitzaizkien. Datu horien bitartez bilatu zen kanpo espazio horietako ezaugarrien ahalik eta informazio zehatzena jasotzea. Datu jasotze horretarako jolastokia hutsik egotea ezinbesteko baldintza zen. Audio eta bideo grabazioetan kanpo espazioaren deskribapena egiteko, alde aurretik ikerketa taldean osatutako protokoloa erabili zen. Datu horiekin guztiekin bildutako informazioa aintzat hartuta, bi dokumentu mota sortu ziren azterketa prozesua errazteko asmoz: alde batetik, behatutako ikastetxe bakoitzeko kanpo espazioko planoak, *Floorplanner* (Floorplanner HQ) softwarearen bitartez (aipatu beharra dago plano horiek ez dituztela neurri eta dimentsio errealak, ikastetxeetako kanpo espazioak irudikatzeko zirriborroak besterik ez dira); eta bestetik, glosario bat osatu zen jolastokietan aurkitutako elementu bakoitzarekin.

Ondoren, kanpo espazioaren kalitate orokorra neurtzeari ekin zitzaion POEMS eskalaren bitartez. Horretarako, neurketa egin zen Haur Hezkuntzako haurrak eta bertako tutorea

kanpo espazioan zeuden bitartean 30 minutuz behatuz. Behaketa bidez jaso ez ziren itemen inguruko informazioa eskuratu zen tutoreekin izandako elkarrizketari esker.

Bestetik, ikerketaren datu guzti horiek batu eta aztertzearekin bat, 2012ko ekainean, Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntza eskatu zitzaion Gipuzkoa ikasten duen Lurralde gisa sustatzeko programa delakoaren baitan. Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako proiektua babestu zuen eta, ondorioz, konpromisoa hartu zen Haur Hezkuntzako kanpo espazioen konfigurazioa eta erabilera aztertzeko eta parte hartuko zuten ikastetxeei horren berri emateko. Halaber, ardura hartu zen parte hartuko zuten zentzoei bere berriazko emaitzen berri emateko eta, baleude, hobetzeko iradokizunak emateko. Hori dela eta emaitzen berri emateko jardunaldi publiko batean, ikastetxe bakoitzari txosten bana luzatu zitzaion, hain justu, sozializazio lan hori egiteko.

Tresnak

Ikastetxeetako Kanpo Espazioaren Ebaluaziorako Eskala

Ikastetxeetako Kanpo Espazioaren Ebaluaziorako Eskala (Preschool Outdoor Environment Measurement Scale, POEMS; DeBord, Hestenes, Moore, Cosco eta McGinnis, 2005). POEMS eskalak Haur Hezkuntzako kanpo espazioetako kalitate orokorra neurtzen du. Behaketaren bidez, kanpo espazioaren konfigurazioa eta erabilera aztertzen dira. Horretarako, behaketa egiten da haurrak eta irakasleak kanpo espazioa erabiltzen ari direla. Eskalaren aplikaziorako behaketak 45 eta 60 minutu arteko iraupena dauka. Behaketa bidez jaso ez diren itemen inguruko informazioa parte hartutako irakasleei galdetuz eskuratzen da. Behaketa eta elkarrizketa bidez, dimentsioetako itemak betetzen diren edo ez aztertzen da. Betetze mailaren arabera, dimentsio bakoitzaren ehunekoa kalkulatu da, 0tik 100era bitartean. Bestalde, POEMS eskala 56 item ezberdinez osatuta dago; bost dimentsiotan banatutako 56 itemetan hain zuzen: (1) Ingurune fisikoa, (2) Elkarrekintzak, (3) Jolasteko eta ikasteko eszenatokiak, (4) Programa eta (5) Irakaslearen rola.

Lehenik, Ingurune fisikoa izeneko dimentsioak (13 item) Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren ezaugarrien kalitateari egiten dio erreferentzia. Kalitate altuko ingurune fisikoak ekintzarako eszenatoki bat eta haurren ikaskuntza eta jolasa suspertzea

eskaintzen du. Bertan, haurrak bere gaitasunak azalera ditzake, erronkak hartzeko, esperimentatzeko eta naturarekiko harremanak izateko aukerei esker. Bestalde, haurrak ingurune seguru batean arriskuak kudeatuko ditu, auto-erregulatuko baita. Halaber, kalitate handiko kanpo espazio batek aukera ugari eskainiko dizkio: ikertzeko, irudimena sustatzeko, identitate kulturalaren zentzuaz jabetzeko edo beste hainbat kompetentzia garatzeko. Baina hori guztia gerta dadin, ingurune fisiko hori integratu behar da bertako eraikinekin eta beste hainbat zerbitzurekin, aparkatzeko txokoak eta sarrerarekin kasu. Interkonexio horiek baimentzen dute jarraitasuna eta kohesioa egotea barne eta kanpo espazioen artean. Era berean, arreta berezia eskaini behar zaio zirkulazioari, trafikoaren patroiei eta instalazioetatik gertu dauden eremu edo txoko guztiak aintzat hartuz. Aparkatzeko tokiak diseinatzeko ere kontutan izan behar dira oinezkoen segurtasunerako neurriak eta kokalekuetan saihestu behar dira kotxeen gas jarioen eraginpean jartzea, esaterako. Dimentsio honen baitako itemen adibideak dira ondoko hauek: “Kanpoko jolastokia eta ikaste eremuak babestuta edo indargetuta daude inguruko aparkalekuetako kotxeen keengandik eta arriskuengandik (adibidez, zuhaixken bidez indargetuta, hesi irmoa, edo aparkatutako kotxeengandiko distantzia)”; “Kanpo espaziorako sarbidea erraza da haurrentzat, premia bereziak dituztenak barne”.

Bigarrenik, Elkarrekintzak dimentsioak (13 item) aintzat hartzen ditu haurraren kalitatezko elkarrekintzak kanpo espazioko objektu eta material naturalekin, berdinkideekin eta irakasleekin. Irakasle eta familien arteko elkarrekintzak ere aztertzen dira. Kalitate altuko espazioek baimentzen dute haurrak berdinkideekin, helduekin edo eta objektu eta material naturalekin (jostailuak, animalia txikiak, landareak, harriak, hondarra, eta abar) elkarrekintzan aritzea. Dimentsio honen itemak dira ondoko adibide hauek: “Gutxienez haur bat behatu da ingurune naturala ukitzen, hautematen eta zentzuen bidez esploratzen; “Irakasleak jakin-mina eta esplorazioa modelatzen ditu ikaskuntza berria eman dadin laguntzeko”.

Hirugarrenik, Ikasteko eta jolasteko eszenatokiak dimentsioa (13 item) oinarritzen da jolasteko eta ikasteko espazioen eta materialen kalitatean. Kalitate altuko testuingurutzat hartzen dira jarduera espezifikoak edo gai komunak (jolas aktiborako txokoa, hizkuntza txokoa, hondarra eta ura, baratzea eta abar) sustatzeko espazioak bereizten dituzten

kanpo espazioak eta bertan material aproposak dituztenak. Materialei dagokienez, aintzat hartzen dira hala euren izaera (naturala, fabrikatutakoa, higikorra edo soltea) nola beren egokitasuna eta funtzioa. Halaber, material natural edo ez natural dituzten ere aztertzen da. Dimentsio honi dagokionez, ondoko item adibideak daude: “Jolas materialak eta jostailuak haurren eskura daude eta hurrek jolasteko modukoak dira; “Biltegia egokia da kanpoko jolasentzako, pieza solteentzako, eta hornigaiantzat”.

Laugarrenik, Programa dimentsioak (9 item) kanpo espazioaren integrazio kurrikularrari egiten dio erreferentzia. Kalitate altuko programetan kanpo espazioko jarduera gelakoaren hedapen gisa kontenplutzen da, curriculumean erabat integratua. Horrek adierazten du gogoeta egin dela eta baliabide pedagogikotzat hartu dela kanpo espazioa, nolabait curriculumean txertatuz. Beraz, kanpo espazioari ahal bezain besteko etekina ateratzeko gogoeta egitea baloratzen da, modu horretan, bere garapenerako eta ikaskuntzarako aukerak baliatuz: ikerketarako, esploraziorako, jarduera fisiko zein mugimendu askerako, elkarrekintza sozialetarako, hizkuntzaren garapenaren sustapenerako, negoziazio eta kooperaziorako, material ezberdinekin esperientziak izateko, eta abar. Dimentsio honen itemak dira ondoko adibide hauek: “Barrualdearen eta kanpoaldearen arteko loturaren ebidentziak daude behatutako egunean”; “Kanpoko ekintzen programak matematika eta zientzia ekintzak sustatzen ditu behaketa egunean”.

Bosgarrenik, Irakaslearen rola dimentsioak (8 item) erreferentzia egiten dio hezkuntza komunitatearen (irakasle, familia eta komunitate baliabideak) inplikazio mailari kalitatezko kanpo espazioak sustatzeko. Komunitatearen partaidetzarekin batera, azpimarratzen da irakaslearen rola eta konpromisoaren garrantzia ikaskuntzarako kanpo espazioen diseinu berriak eskaintzeko. Irakaslearen zereginen baitan kokatzen dira, besteak beste, ondoko elementuak: hurrei segurtasuna bermatzea, autonomia baimentzea jarrera sarkor edo intrusiborik gabe, haurren ikaskuntza sortzailerako aukerak sustatzea... Dimentsio honen adibideei dagokienez, ondokoak har daitezke: “Irakasleek kanpoko ekintzetan familien parte hartzea errazten dute”; “Irakasleek kanpoan jolas egitearen balioan hezten dituzte gurasoak eta balio hori komunikatzen diete, ingurune naturalen eta jarduera fisikoaren beharra barne (dokumentazioa)”.

POEMS tresnak, bere bost dimentsio horiekin, barne trinkotasun egokia erakusten du. Programa eta Irakaslearen rola aldagaietan izan ezik, Cronbachen alpha-ren balioak 0.58 eta 0.78 artean oszilatzen zuten (Ingurune fisikoa, 0.58; Elkarrekintzak, 0.78; Jolasteko eta ikasteko eszenatokiak, 0.68; Programa, 0.50; Irakaslearen rola; 0.52) (DeBord et al., 2005). Gure laginari dagokionez, jatorrizko bertsioarekin konparatuta, antzerako balioak izan genituen, Cronbachen alpha-ren balioak 0.55 eta 0.72 artean oszilatzen baitzuten. Aipatu beharra dago, Fisher-Bonnet (Kim eta Fedt, 2008) frogaren gauzatu ostean, ez zela ezberdintasun estatistikoki esanguratsurik aurkitu Cronbachen alpha-ren balioetan jatorrizko eta gure laginaren artean. Halaber, POEMS eskalak edukien baliozkotasun egoki eta bateratua du (DeBord et al., 2005). Ikastetxeetako 19 kanpo espazioak Haur Hezkuntzako bi adituen bitartez kodifikatu ziren. Behatzaileen arteko akordioa .91koa izan zen (Spearmanen korrelazioa).

2. helburua: Haur Hezkuntzako kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzea eta generoaren arabera ezberdintasunik ote dagoen ezagutzea.

Parte-hartzaileak

Ikerketaren bigarren helburua gauzatzeko lanetan lehenengo helburua gauzatzeko parte-hartu zuten haurretako 173k hartu zuten parte (87 neska, %50.3, 86 mutil, %49.7). Haur horiek hiru eta sei urte bitartekoak (*adinaren* $BB = 3.95$, $DT = 0.82$) ziren. Haur horietako 62 hiru eta lau urte bitartekoak ziren (32 neska, %52, 30 mutil, %48); beste 58 haur, lau-bost urte bitartekoak (29 neska, %50, 29 mutil, %50); eta bost-sei urte bitarteko 53 haur (26 neska, %49, 27, %5 mutil) zeuden. Bigarren helburu hori gauzatzeko, 51 irakasleek ere hartu zuten parte (50 emakume, gizonezko 1). Haur zein irakasleak beraien erabilgarritasunaren arabera aukeratu ziren. Idatzizko baimena lortu zen grabatu beharreko haur guztien guraso edo tutoreen partetik zein irakasle eta eskolako administrazioen partetik.

Prozedura

Haurren kanpo espazioko jolasa behaketaren eta bideo grabazioen bitartez jaso zen. Hala eta guztiz ere, horren aurretik, lehenengo helburuarekin jarraitutako prozedura bera jarraitu zen. Horregatik, eta ikerketako lehen helburuko prozeduran zehatzago azaldu den bezala, haurren kanpo espazioko jolasa grabatu aurretik, ondorengo lanak bete ziren: ikastetxeetan proiektua aurkeztu, haurrek ikerketan parte-hartzeko baimenak lortu, haurren grabazioak egiteko kronograma osatu ikastetxeekin eta haurrak grabatzeko protokoloa sortu.

Jolasaren behaketak hiru hilabetetan zehar jaso ziren, apirilean hasi eta ekainaren hirugarren astera bitartean. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko maila bakoitzeko egin ziren grabazioak: hiru-lau urteko taldeetako haurrei, lau-bost urteko taldekoei eta bost-sei urtekoei. Egun bakoitzeko lau haur aukeratu eta 24 minutuko grabazioa egin zen, zoriz

aukeratutako bi neska eta bi mutil jolastokian zeuden bitartean eta bakoitza 6 minutuz jarraituz. Ezinbestekoa da aipatzea, haurren bideo grabazioak egiteko ere aldez aurretik adostutako protokoloa jarraitu zela. Nahiz eta grabaketa aukeratutako haur jakinengan oinarritzen zen, egun horretan eskolara joandako beste hainbat haur ere filmatu ziren jolastokian une horretan egoteagatik. Nabarmentzekoa da aldagai jakin batzuk kontrolatzeko asmoz halako estrategiak erabili zirela; antzeko eguraldia zegoen egunak aukeratzea (ateri eta 14° C eta 18°C bitarteko tenperaturak), grabaketa guztiak eguneko ordu tarte berean egitea (11:00 – 11:30), hurrek eskolan (5 ordu) zein kanpo espazioan (30 minutu) denbora tarte berbera pasatzea eta antzerako baldintzak zituen irakaslea izatea: haur erlazioa (1:24) eta taldearen tamaina totala (21-25). Era berean, haurren identitatea isilpean gorde zen, izaera pertsonala zuten datuen babeserako 15/1999 Lege Organikoak (LOPD) agintzen duenaren arabera. Bideo grabazioekin bukatzeko, hauek ikusi, aztertu eta ondorengo tresnen bitartez ebaluatu ziren: Jolasa Behatzeko Eskala (POS) eta Haurren Inplikazioa Neurtzeko Leuven Eskala (LIS-YC).

Tresnak

Jolasa Behatzeko Eskala (The Play Observation Scale, POS; Rubin, 2001)

Jolasa Behatzeko Eskala (POS) Haur Hezkuntzako haurren jolaseko parte-hartze soziala eta eremu kognitiboaren nolakotasuna neurtzen duen tresna da. Frogatu denaren arabera, tresna baliagarria da ondorengoak zehazteko: haurren jolasean ematen diren adin eta generoaren araberrako ezberdintasunak; jolasean estatus sozioekonomikoaren arabera dauden ezberdintasunak; jolasaren konfigurazio ekologikoaren efektuak; jolas indibidualetako ezberdintasunak; eta jolas kognitibo mota ezberdinak banatzen diren testuinguru sozialak (Fromberg eta Berger, 2015).

Ikerketa honen bigarren helburua lortzeko asmoz, haur bakoitzaren kanpo espazioko jolas librea erregistratu zen eta parte-hartze sozialaren ebaluazioa grabatutako bideoen behaketaren bitartez egin zen. 10 segundotako bitarte bakoitzeko parte-hartze soziala (sei aldagai: eginkizun zehatzik gabeko portaera, behaketa, bakarkako jolasa, jolas paraleloa, berdinkideen arteko elkarriketa eta talde jolasa) kodifikatu zen. Guztira, haur bakoitzeko 6 minutuko behaketa egin zen, bakoitzean 36 tarte kodifikatuz. Horrela

definitu daitezke, laburki, parte-hartze sozialari dagozkion kodifikazioak egiteko erabilitako aldagaiak: eginkizun zehatzik gabeko portaerak dakar helburu edo foku zehatzik ez izatea; haur bat behatzailezat definitzen da beste haurren jarrera eta jarduerak ikusten edo entzuten dabilenean; haur bat bakarkako jolasean dabil ekintza batean bera bakarrik ari denean; berdinkideen arteko elkarrizketa batean bi haur edo gehiagoren arteko elkarrizketa gertatzen da, jolas paraleloak dakar ekintza batean beste haurren ondoan (baina ez batera) parte-hartzea; talde jolasean haur bat beste haur batekin edo batzuekin jolasten da helburu edo xede komun batekin (Rubin, 2001).

Haur Hezkuntzan adituak ziren bi behatzaileek grabaketak aztertzeke beharrezko formazioa egin zuten. Bideo grabazio bakoitzean gainezarritako denbora lerroek eta hasi eta geldituz eragiteko dispositiboak baimendu zuten behatzaileek 10 segundotako denbora tartetako bideo zatiak aztertzea. Behatzaileen arteko barne eta kanpo adostasunek (Cohenen kappa) .92 eta .89ko koefizienteak erakutsi zituzten, hurrenez hurren. Azken emaitza horien kalkulua bigarren behatzaileak kodifikatutako bideo grabaketen %30aren kalkuluan oinarritu zen.

Haurren Inplikazioa Neurtzeko Leuven Eskala

Haurren Inplikazioa Neurtzeko Leuven Eskalak (Leuven Involvement Scale for Young Children, LIS-YC; Laevers, 1994; 2005) umeak garatzen ari den ekintzarekiko duen inplikazio edo konpromiso maila aztertzen du. Inplikazioaren ebaluazioa haurrak kanpo espazioan jolas librean ari ziren bitartean grabatutako bideoen behaketaren bitartez egin zen. Haur bakoitzeko minutu bateko iraupeneko 6 denbora-tarte kodifikatu ziren, eta sekuentzia bakoitzean inplikazio maila 1etik 5erako eskala batean sailkatua izan zen.

Ondorengoak dira inplikazio mailaren eskalak bereizten dituen bost puntuazioak: (1) Inplikazio erabat baxua: haurrak jarduera aktibo oso urria erakusten du (ez du arretarik erakusten, begirada galdua, jarrera pasiboa, helburu zehatzik gabe, ez du ezer sortzen, ez du esploratzen edo interes zehatzik erakusten, ez dauka ezer eskuen artean, ez dago jarduera kognitiborik); (2) Inplikazio baxua: Umea egiten ari dena askotan eteten da (arreta mugatua, urrunera begiratzen du jarduera bideratzen ari den bitartean, manipulazio urria, ametsetan, erraztasunez distraitzen da, ekintzak emaitza mugatuak

ditu); (3) Neurrizko inplikazioa: haurra jarraitua den ekintzan ari da baina ekintza hori errutinatzat har daiteke umearen inplikazio seinaleen faltagatik (errutina ekintzak, funtsik gabeko arreta, ez du jarduera bera bideratzen une oro, jarduera motzak dira, motibazio urria, ez dago dedikazio oso bat ekintzarekiko, ez dago erronkarik, ez du maila sakoneko esperientziarik bizi, ez ditu bere gaitasunak maila gorenean erabiltzen, jarduerak ez du haurraren irudimena bultzatzen); (4) Inplikazio altua: umea jarraitua den ekintzan ari da eta zenbait unetan jarduera benetan esanguratsua da inplikazio seinaleak ikusirik (haurra jardueran sartuta dago etenik egin gabe, denbora gehienez arreta maila altua dago, baina tarte txiki batzuetan arreta azalekoa da; haurrarentzat erronka bat dago, nolabaiteko motibazioa badago, haurraren gaitasunak eta bere irudimena neurri batean bideratzen ari den jardueraren ondorio dira); (5) Inplikazio erabat altua: umea jarraitua den ekintzan ari da eta une oro jarduera benetan esanguratsua da. Arreta, sormena, energia eta jarraikortasuna agerian gelditzen dira (ekintzak bere arreta guztiz bereganatu du, inongo etenik gabe mantentzen du arreta, motibazio maila altua erakusten du, jarduerak guztiz erakarri du bere arreta, ekintzari eusten dio etenik gabe, bestelako estimulu argiek ez dute bere arreta deitzen, erne dago, xehetasunetara adi dago, ekintza zehatza bideratzen dabil, jarduera kognitibo handia eta ekintza bizia erakusten du, haurrak bere gaitasun guztiak bideratzen ditu, irudimena eta gaitasun kognitiboak maila gorenean erabiltzen ari da, jardueraz gozatzen dabil zalantzarik gabe).

Sei behaketa tartez osatutako multzoen batez besteko balioa kalkulatu zen: zenbat eta puntuazio txikiagoa, orduan eta inplikazio maila txikiagoa, eta alderantziz. Datuen kalitatearen kontrola ziurtatu zen hauen erregistroa gauzatu aurretik. Horretarako, bideoen azterketa egin zuten behatzaileek datuen fidagarritasuna bermatu zuten adostutako bat-etortzearen bitartez (bideo grabazioen %30arekin). Era horretan, batetik, ziurtatu nahi izan zen datuak behatzaile bakoitzaren irizpide subjektibotik aske zeudela; eta, bestetik, kontrolatu nahi izan ziren neurriaren egonkortasuna frogatu eta behatzaileek izan zitzaketen ustezko alborapen sorburuak. Haur Hezkuntzako adituak ziren bi behatzaileen arteko bat-etortzeak .85eko korrelazio koefizientea erakutsi zuen (eragin bikoitzeko faktoreak, erabateko adostasuna).

3. helburua: Aurreko helburuetan izandako emaitzetan oinarrituta, Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatu, gauzatu eta beren emaitzak ebaluatzea.

Parte-hartzaileak

Kanpo espazioetan berrikuntzak emateko azken urratsean, Haur Hezkuntzako hasierako 19 zentro horietako 7 ikastetxek hartu zuten parte, horretarako borondatea erakutsi eta gero Oraingo honetan, parte-hartu zuten ikastetxeen izaera ondorengoa zen: bi eskola publikoak ziren, hiru ikastolen elkartearen baitakoak eta beste biak ikastetxe erlijiosoak. Zazpi ikastetxe horietan, guztira 1001 haur zeuden Haur Hezkuntzako bigarren zikloan Halaber, haur horiekin erlazio zuzena zuten 54 gurasok eta 94 irakaslek ere hartu zuten parte.

Haur, profesional eta familia horiek erabiltzen zituzten kanpo espazioak hainbat neurritako herrietan lekutzen ziren. Oraingo honetan ere, zazpi herri horietako biztanle kopurua aintzat hartzen badugu, 5000 biztanle azpitiko herrietan kanpo espazio bakarra kokatzen zen; beste bat zen 5000 eta 10000 biztanle arteko herria zen; hiru kanpo espazio 10000 eta 15000 arteko herrietakoak ziren, eta, azkena, 15000 biztanletik gorako herri batean lekutzen zen. Beraz, izaera ezberdineko herri txiki, ertain eta handietako kanpo espazioetako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatu, gauzatu eta egindako ekintzak ebaluatu dira ikerketaren hirugarren helburu honetan.

Prozedura

2013an, berriz ere Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntza eskatu eta jaso ostean, aurreko prozesuan parte hartutako ikastetxeei aukera luzatu zitzaion haien kanpo espazio horietan berrikuntza prozesu parte-hartzaile bat aurrera eramateko. Proiektuan horietako 7 ikastetxek parte hartu zuten, horietarako gogoia adierazita. Ikastetxe bakoitzeko kideekin batera, adostu zen kanpo espazioen berrikuntza egiteko prozesu parte-hartzaile bana. Horretarako, irakasle, zuzendaritza talde eta familiarekin batera, proiektuaren

aurkezpena egin ostean, ebaluazioa eta hobekuntza posibleak identifikatu ziren. Familia, profesional zein haurren parte-hartzearekin, proposamenen definizioak egin, lan taldeak osatu eta hobekuntza proposamenak gauzatu ziren. Berrikuntzak gauzatzearekin batera, prozesu parte-hartzailea ebaluatzeko prozesua ere burutu zen eta bertan parte-hartu zuten guztien ahotsak jaso ziren.

Bestalde, kanpo espazioetan gauzatutako berrikuntzak neurtzeko, POEMS tresnaren bi dimentsioen kalitatea ebaluatu zen, *ikasteko eta jolasteko eszenatokiak* eta *programa* dimentsioena, hain zuzen ere. Prozesu parte-hartzaileari esker bideratutako ekintza guztiak bi dimentsio horiek jasotzen dituzten aldagaietan fokatu zirenez, erabaki zen neurketa POEMS eskalaren bi eremu horietara mugatzea.

Prozesuarekin amaitzeko, jardunaldi publiko bat gauzatu zen zazpi ikastetxe horietan bititako esperientziak ezagutzera emateko, prozesuaren inguruan elkarrekin hausnartzeko eta etorkizuneko lan posibleak identifikatzeko.

Tresnak

Preschool Outdoor Environment Measurement Scale

Ikastetxeetako Kanpo Espazioaren Ebaluaziorako Eskala (Preschool Outdoor Environment Measurement Scale, POEMS; DeBord, Hestenes, Moore, Cosco eta McGinnis, 2005). 1. helburuko tresnetan azaldutako POEMS eskalak Haur Hezkuntzako kanpo espazioetako kalitate orokorra neurtzen du. Azken helburu hau gauzatzeko ordea, eskala honetako bi dimentsio erabili ziren: *Jolasteko eta ikasteko eszenatokiak* eta *Programa*. Dimentsio horiek 1. helburuko tresnaren baitan azaldu dira aldez aurretik.



4. Emaitzen laburpen orokorra

4.1. Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren diseinu eta erabilera eta kalitate orokorraren lehen hurbilpena

4.2. Haur Hezkuntzako kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa eta generoaren araberako desberdintasunak

4.3. Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatzea, gauzatzea eta ebaluatzea

4. EMAITZEN LABURPEN OROKORRA

4.1. Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren diseinu eta erabilera eta kalitate orokorraren lehen hurbilpena

Ikerlan honetako 1. helburua zen Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren diseinua eta erabilera ezagutzea eta kalitate orokorraren lehen hurbilpen bat egitea. Horretarako, lehenik eta behin, ikastetxeetako kanpo espazioaren analisi deskriptiboa egin zen.

Ondorengo taulan ikus daitezke POEMS eskalaren bitartez lortutako Haur Hezkuntzako kanpo espazioetako kalitateari dagozkion batez besteko emaitzak eta desbideratze tipikoak. Haur Hezkuntzako kanpo espazioetako kalitatearen batez bestekoa neurrikoa (%60.47) izan zen. Ingurune fisikoaren eta elkarrekintzen baitan lortutako emaitzak altuak izan baziren ere, gainontzeko aldagaiek kalitate ertaina erakutsi zuten. Azpimarratzekoa da gainera, irakaslearen rolaren aldagaia oinarritzko kalitatetzat hartzen den puntuaziotik zerbait gorago geratu zela.

2. Taula

Kanpo espazioko kalitatearen batez bestekoak eta desbideratze tipikoak

Aldagaia	BB	DT	Portzentajeen BB (Balio tartea = 0 – 100)	Portzentajeen DT	N
Ingurune fisikoa (balio tartea = 0-13)	10.21	2.84	78.54	21.84	19
Elkarrekintzak (balio tartea = 0 – 13)	9.89	2.88	76.11	22.19	19
Jolasteko eta ikasteko eszenatokiak (balio tartea = 0 – 13)	7	2.33	53.85	17.95	19
Programa (balio tartea = 0 – 9)	4.42	1.35	49.12	14.96	19
Irakaslearen rola (balio tartea = 0 – 9)	3.58	1.68	44.74	20.96	19
Guztira			60.47	16.65	19


Kanpo espazioko jolastokien diseinua batez ere gehiengoaren kiroletara bideratua zegoen, non futbol eta saskibaloiz zelaia (%68) nabarmentzen ziren. Izan ere, hainbat jolastokietan kirol aukera bakarra ziren. Are gehiago, ikusi zen haur talde handi batek, batez ere mutilek, futboleko jolasean ari zirenean, sarri jolastokiaren zati handiena erabiltzen zutela gainontzeko haurrei erakargarritasun gutxiago zuten eremuetan jolastera behartuz jolas ezberdinetarako baliabide eta aukera eskasekin. Kanpo espazio gutxi ematen zuten aukera bestelako material batzuekin jolasteko (%55.6), hala nola soka saltoa edo sareak (%5.6). Gainera inoiz edo behin aurkitu ziren haurren interesari erantzun dakieken material osagarriak, hondarrarekin jolasteko (%5.6) edo marrazkiak egiteko (%5.6) esaterako. Era horretako material osagarriak aurkitu zitezkeen jolastokietan ikusi zen, hauen eskuragarritasuna ez zegoela bermatuta sarri askotan (%50), haurren autonomia oztopatuz. Aztertutako kanpo espazioak beraz, ikaskuntzarako ingurune naturalizat hartzen diren horietatik nahiko urrun zeuden (%16.7), hots, haurrak ez zituzten aukera asko ikasteko eta jolasteko elementu natural anitzen manipulazioa gauzatzeko esperientzia sensorial eta motoreen bitartez. Orokorrean, ingurumen- aniztasuna, naturako elementuen presentzia eta hauekiko kontaktu maila baxuak aurkitu ziren.

Ikastetxeetako kanpo espazioaren erabilerari dagokionean, denboran (atsedenaldiko 30 minutu) eta espazioan (ikastetxeko jolastokira mugatua) mugak aurkitu ziren eta hurrek noizbehinka erabiltzen zituzten erabilera publikoko espazioetan kokatutako baliabideak. Irakasleei egindako elkarrizketatan kanpo espazioari ez zitzaion otu zaion balio pedagogikoa ikusten. Orokorri eskolako patioa hurrek korrika egiteko eta barruak husteko espaziotzat hartzen zuten. Irakasle gehienek hurrek kanpo espazioan ematen duten denbora atsedenerako tarte gisa ikusten zuten, benetan garrantzitsua den horretatik, hau da, gela barnean gertatzen den horretaz, tarte batez askatzeko. Horren ondorioz, hezkuntzaren testuinguruko balio urriko espazio gisa ikusten zen kanpo espazioa, non haurrak zaindu eta hala eskatzen zutenean laguntza eskaintzen zitzaien, haur bat lurrera erori eta laguntza eskatzen zutenean, esate baterako. Horrekin guztiarekin bat eginez, ez zen ikusi irakaslerik haurren kanpo espazioaren inguruko zaintza edo ikaskuntza areagotzeko asmoa erakusten. Era berean, ez zen jarrera proaktiboa erakusten zuten irakaslerik ikusi haurren jolasa aberasteko baliabideak eskaintzen.

Aurretik esan bezala, kanpo espazioaren kalitatearen z, batez besteko emaitza 63.73koa izan zen ($DT= 8.15$), 44.94 eta 82.18 arteko puntuazio neurriarekin. 1. irudian adierazten den bezala, *POEMS* eskalak (DeBord et al., 2005) aztertutako bost dimentsioen artean, *Ingurune fisikoa* ($BB=82.59$; $DT= 10.83$) eta *Elkarrekintzak* ($BB= 80.57$; $DT= 12.4$) dimentsioek jaso zituzten kalitate indize altuak. Aitzitik, *Jolasteko eta ikasteko eszenatokiak* ($BB= 56.68$; $DT= 12.35$), *Programa* ($BB= 51.46$; $DT= 9.23$) eta *Irakaslearen rola* ($BB= 47.37$; $DT= 17.96$) dimentsioetan, emaitzak nabarmen baxuagoak izan ziren.

1.Irudia

Kanpo espazioaren kalitatea dimentsioka



Aztertutako ikastetxeetako kanpo espazioen kalitatearen informazio zehatzagoa jasotzeko asmoz, izandako emaitza orokorren arabera kanpo espazioen kategorizazioa egin zen. Horretarako, emaitzen arabera, bereizi ziren kalitate baxuko kanpo espazioak (50etik beherako puntuaziodunak), kalitate ertainekoak (50 eta 65 arteko puntuaziodunak), kalitate altukoak (65 eta 85 arteko emaitzadunak) eta kalitate oso altuko kanpo espazioak (85eko puntuaziotik gorakoak).

Ikus daitekeen bezala, 3. taulan azaltzen dira kanpo espazioaren kalitate orokorrari dagozkion aztertutako aldagai bakoitzean izandako ehunekoak.

3.Taula

Kanpo espazioaren kalitate orokorra

Dimentsioa	Kalitate maila	N	Ehunekoak
Kalitatea	Kalitate baxua	2	%10.5
	Kalitate ertaina	14	%73.7
	Kalitate altua	3	%15.8
	Oso kalitate altua	0	%0
	Guztira	19	%100
Ingurune fisikoa	Kalitate baxua	0	%0
	Kalitate ertaina	0	%0
	Kalitate altua	15	%78.9
	Oso kalitate altua	4	%21.1
	Guztira	19	%100
Elkarrekintzak	Kalitate baxua	1	%5.3
	Kalitate ertaina	1	%5.3
	Kalitate altua	15	%78.9
	Oso kalitate altua	2	%10.5
	Guztira	19	%100
Jolasa eta ikaskuntza	Kalitate baxua	5	%26.3
	Kalitate ertaina	9	%47.4
	Kalitate altua	5	%26.3
	Oso kalitate altua	0	%0
	Guztira	19	%100

Programa	Kalitate baxua	8	%42.1
	Kalitate ertaina	7	%36.8
	Kalitate altua	4	%21.1
	Oso kalitate altua	0	%0
	Guztira	19	%100
Irakaslearen rola	Kalitate baxua	10	%52.6
	Kalitate ertaina	6	%31.6
	Kalitate altua	3	%15.8
	Oso kalitate altua	0	%0
	Guztira	19	%100

Goiko taulan ikus daitekeenez, eginiko kategorizazioak aditzera ematen du kanpo espazio gehienak (%73.3) kalitate ertainekoak zirela. Aldi berean, kategorizazioak adierazten du %10.5 kalitate baxukoak zirela eta %15.8 berriz, kalitate altukoak. Aipatzekoa da aztertutako kanpo espazio bakar batek ere ez zuela oso kalitate altuko kategorizazioa.

Bestalde, aztertutako kalitate dimentsioei dagokienez, agerian gelditzen da zentro askotan zegoela espazio fisiko segurua, nahikoa estimulagarria eta ongi antolatu eta diseinatutakoa, kalitate altuko (%78.9) zein oso altukoa (%21.1). Are gehiago, zentro askotan ikusi zen elkarrekintza positiboak baimentzen zirela, aztertutako kanpo espazioen %89.4 kalitate altu edo oso altukoak baitziren. Aitzitik, Jolasteko eta ikasteko eszenatokiak dimentsioan, kalitate ertaina zen nagusi (%47.4). Dimentsio horretan gainera, oso bestelako emaitzak eman ziren, kanpo espazioen %26.3 kalitate baxukoak ziren bitartean, beste horrenbeste baitziren kalitate altukoak. Azkenik, kanpo espazio gehienetan kalitate baxuak eta ertainak eman ziren Programa (%42.1 eta %38.8 hurrenez hurren) eta Irakaslearen rola (%52.6 eta %31.6 hurrenez hurren) dimentsioetan.

Emaitza orokorrak eta dimentsioetakoak osotasunean aditzera eman eta gero, sakonago begiratuko zaie dimentsioen baitan aztertutako itemei eta kanpo espazioak hobetzeko

balizko aukerei. Adibidez, Ingurune fisikoaren dimentsioaren baitan ($BB = 82.59$; $DT = 10.83$), hobetzeko aukerak antzematen ziren ikastetxeko sarreraren egokitasunean, bereziki irisgarritasuna errazteko baliabideei eta aterpeari dagokienez. Halaber, sarreratik harago, barruko geletatik ohiko jolastokirako sarbide zuzenik ez izatea, aterpe txikiak edo aterperik ez egotea, elementu naturalen eskasia edo kanpo espazioaren estetika edo erakargarritasuna izan ziren hobetzeko aukera erakutsi zuten beste itemak.

Elkarrekintzen dimentsioari dagokionez, emaitza altuak izan baziren ere ($BB = 80.57$; $DT = 12.4$), zenbait itemetan puntuazio baxuagoak eman ziren. Kasu honetan, azpimarratzekoak dira elementu naturalekin hartu-emanetan jartzeko eta haurren arteko elkarrekintzak errazteko baliabide eta ekintza urriak. Halaber, behaketetan antzeman zen haurren eta irakaslearen arteko elkarrekintza gutxi zegoela eta horrenbestez, haurren seinaleei (interes, behar...) erantzuteko zailtasunak zeudela. Soka beretik, agerian gelditu zen familien presentzia urria ikastetxeetako kanpo espazioetan.

Bestalde, Jolasteko eta Ikasteko Eszenatokiak aztertzen zituen dimentsioan emaitza ertainak eman ziren ($BB = 56.68$; $DT = 12.35$) eta esan daiteke bere baitako itemetan gorabeherak zeudela. Adibidez, balorazio positiboa zuten jolaserako eta ikaskuntzarako zenbait eremuk, arlo motorra bultzatzekoak kasu; baina, aldi berean, hutsuneak ematen ziren beste hainbatetan.

Programari dagokion dimentsioari bagagozkio, esan behar da emaitzak ozta-ozta gainditzen zuela 50aren langa ($BB = 51.46$; $DT = 9.23$). Emaitza horrek aditzera ematen zuen hobetzeko aukera ugari zeudela dimentsio honen baitako itemetan. Item horiek erakutsi zuten ikastetxe askotan kanpo espazioaren erabilera jolastordura mugatzen zela, alegia egunean 30 bat minutu erabiltzen zela, beti ere, eguraldi ona zegoenean. Ikerketan agerian gelditu zen eguneroko 30 minutu horietara eta oso noizean behineko ekintzetara mugatzen zela ikasturtean zehar kanpo espazioaren erabilera. Are gehiago, ikerketan ikusi zen eurria, elurra, hotza edo bero handiko egunetan kanpo espazioa erabili ere ez zela egiten.

Dimentsioekin amaitzeko, Irakaslearen rolari dagokiona izan zen emaitzarik baxuena izan zuena ($BB = 47.37$; $DT = 17.96$). Horren arrazoi nagusia da kanpo espazioarekiko hausnarketa lan sakonegia eginga ez izatea aztertutako ikastetxe gehientsuenetan. Item

zehatzei dagokienez, emaitzek aditzera eman zuten hobetzeko aukerak zeudela, besteak beste, kanpo espazioaren balioarekiko irakasleen kontzientzia, komunitateko kideen partaidetzaren sustapenean edo gaiarekiko irakasleen prestakuntzan.

4.2. Haur Hezkuntzako kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa eta generoaren arabera desberdintasunak

Haur Hezkuntzako kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzeko helburuarekin, lehenik eta behin, aldagaien analisi deskriptiboa egin zen. Ondoren, korrelazioen analisi bat gauzatu zen ikerketaren aldagai ezberdinen arteko erlazioak esploratzeko asmoz. Kasu guztietan kalkulatu zen Pearsonen korrelazio koefizientea aldagai dikotomikoa zen kasuetan izan ezik. Kasu horietan korrelazio biserial-puntualaren koefizientea kalkulatu zen. Azkenik, hipotesien-contrastea gauzatzeko interakzioarekin egindako erregresio linealeko analisisia egin zen. *Sartu* analisi metodoaren bitartez blokeen arabera erregresio lineala egin zen, eredu osoa barneratuz. Azken blokean interakzioak probatu ziren eta alde aurreko blokeetan aldagai nagusiak sartu ziren. Aipatu beharra dago generoaren aldagaia *dummy* aldagai batean birkodifikatu zela; mutilei 0 balioa eman zitzaizkien (erreferentzia-taldea) eta neskei 1koa. Modu horretan, adinaren aldagaia bi *dummy* aldagaitan birkodifikatu zen eta bertako erreferentzia-taldea 3 urteko haurrak izan ziren. Datuen analisi guztiak SPSS (V.21.0.) softwarearen bitartez bideratu ziren.

Hurrengo taulan ikus daitezke haurren jolas sozial motaren eta inplikazioaren puntuazioen batez bestekoak eta desbideratze tipikoak, generoaren eta adinaren arabera.

4. Taula

Batez besteko puntuazioak eta desbideratze tipikoak jolas sozial motan eta inplikazioan

	Generoa				Adina					
	Neskak (<i>n</i> =87)		Mutilak (<i>n</i> =86)		3 urte (<i>n</i> =62)		4 urte (<i>n</i> =58)		5 urte (<i>n</i> =53)	
	<i>BB</i>	<i>DT</i>	<i>BB</i>	<i>DT</i>	<i>BB</i>	<i>DT</i>	<i>BB</i>	<i>DT</i>	<i>BB</i>	<i>DT</i>
Bakarkako jolasa	1.91	2.90	2.78	4.98	3.13	4.49	1.72	3.23	2.09	4.33
Jolas paraleloa	2.99	7.58	2.47	6.43	4.73	8.94	1.47	4.98	1.77	5.86
Talde jolasa	14.54	9.53	17.83	11.16	14.02	11.20	17.36	9.12	17.40	10.77
Inplikazioa	3.33	0.77	3.48	0.58	3.45	0.68	3.36	0.67	3.39	0.72

Ikus daitekeen bezala (5.taula), inplikazioak korrelazio positibo eta estatistikoki esanguratsuak erakutsi zituen, jolas paraleloan magnitude baxua erakutsiz ($r = .19$; $p < .05$) eta talde jolasean, berriz, ertaina ($r = .49$; $p < .01$). Azkenik, talde jolasak zeinu negatibodun eta estatistikoki esanguratsuak ziren korrelazioak erakutsi zituen magnitude ertaina erakutsiz ($r = -.40$ eta $r = -.48$; $p < .01$) bakarkako jolasarekin eta jolas paraleloarekin, hurrenez hurren, eta magnitude baxua berriz, generoarekin ($r = -.16$; $p < .05$).

Jarraian aurkezten dira kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioaren batez bestekoak, desbideratze tipikoak eta aldagaien arteko korrelazioak.

5. Taula

Batez bestekoak, desbideratze tipikoak eta aldagaien arteko korrelazioak.

Aldagaia	BB	DT	1	2	3	4	5
1. Generoa	-	-	1				
2. Bakarkako jolasa	2.34	4.08	-.11	1			
3. Jolas paraleloa	2.73	7.01	.04	-.02	1		
4. Talde jolasa	16.17	10.47	-.16*	-.40**	-.48**	1	
5. Inplikazioa	3.40	0.69	-.11	-.11	.19*	.49**	1

Oharra: * $p < .05$; ** $p < .01$.

Jolas sozial motak inplikazioarekiko duen efektua aztertzeko asmoz, interakziodun erregresio lineala bideratu zen, generoa, adina eta jolas mota aldagai aurreale gisa eta inplikazioa menpeko aldagai gisa hartuz. Talde jolasaren eta generoaren arteko interakzioa aurkitu zen, $F(9,163) = 21.019$ ($p = .0001$). Interakzio horrek barne hartzen duen eredu linealak azaltzen du inplikazio bariantzaren %53.7. Emaitzak 5. taulan erakusten dira.

Hurrengo taulan ikus daitezke erregresio analisiaren emaitzak jolasa, sexua eta adina aurrealetzat hartuz eta inplikazioa menpeko aldagai bezala erabiliz.

6.Taula

Erregresio analisia jolasa, sexua eta adina aldagai aurrealetzat hartuz eta inplikazioa menpeko aldagai bezala.

Estandarizatutako erregresio koefizienteak (β) ($n = 173$)

Aldagai aurrealetak	1. eredua	2. eredua	3. eredua	4. eredua	5. eredua
Generoa	-.112	.036	.040	.038	-.256
4 urteetako taldea	-.061	-.014	-.014	-.014	-.018
5 urteetako taldea	-.041	-.019	-.021	-.020	-.009
Bakarkako jolasa		.269**	.273**	.273**	.209**
Jolas paraleloa		.625**	.625**	.618**	.535**
Talde jolasa		.903**	.903**	.902**	.756**
Bakarkako jolasa x Generoa			-.009	-.009	.062
Jolas paraleloa x Generoa				.008	.126
Talde jolasa x Generoa					.280*
R ² (azaldutako bariantzaren proportzioa)	.015	.525	.525	.525	.537
Balio erantsia		.510**	0	0	.012*

Oharra: * $p < .05$; ** $p < .01$.

Efektu printzipalei dagokienez, ez zen aurkitu generoak eta taldeko adinak inplikazioarekiko izan zezaketen efekturik. Emaidza horiek erakusten dute, inplikazioari dagokionez, ez zela neska eta mutilen arteko ezberdintasunik aurkitu, ez eta adin ezberdinen arteko hurren artean ere. Emaidzek erakutsi zuten bakarkako jolasak ($\beta =$


.209, $t = 2.732$, $p = 0.007$), zein jolas paraleloak ($\beta = .535$, $t = 5.269$, $p = 0.0001$), edo eta talde jolasak berak ($\beta = .756$, $t = 7.530$, $p = 0.0001$) inplikazioa iragartzen zutela.

Beraz, espero zen bezala, bakarkako jolasa, jolas paraleloa edo talde jolasa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa zen inplikazioa ere. Elkarren osagarri gisa, erregresio koefizienteen analisiek nabarmentzeko informazioa erakusten zuten, talde jolasak gainerako motek (bakarkako jolasak eta jolas paraleloak) baino funtzio garrantzitsuagoa azalduz inplikazioa iragartzerako orduan.

Interakzioaren efektuei dagokienez (ikus 2. irudia), emaitzek argitara eman zuten generoak talde jolasaren eta inplikazioaren arteko erlazioa modulatzeko zuela ($\beta = .280$, $t = 2.061$, $p = 0.041$). Bestela esanda, ikusi zen talde jolaseko maiztasun handiago batek inplikazio handiagoa iragartzen zuela neska zein mutilengan; aldiz, nesken kasuan, zenbat eta frekuentzia handiagoko talde jolasek, orduan eta inplikazioarekiko efektu positiboagoa erakusten zuten.

2. Irudia

Talde jolasaren eta generoaren arteko interakzioa inplikazioarekiko.



Nabarmentzekoa da erregresio analisia gauzatzeko balizkoak bete zirela. Hondakinen histogramak, zein probabilitate grafikoak, normaltasuna bete zuten. Breusch-Pagan eta Koenker testak gauzatu ziren eta ez zen heterozedastizitate arazorik aurkitu. Modu berean, Aiken eta Westen (1991) gomendioei jarraituz, FIV balioak eta tolerantzia indizeak gomendatutako neurrien artean zeudela baieztatu zen.


4.3. Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatzea, gauzatzea eta ebaluatzea

Amaitzeko, kanpo espazioan berrikuntzak gauzatu zituzten eskoletako emaitzak aztertzeko, horien kanpo espazioetan ere analisi deskriptiboak burutu ziren. Datuen analisiak SPSS (V.21.0.) softwarearen bitartez bideratu ziren.

Azken fase honetan, zazpi eskoletan bideratutako berrikuntzen osteko kanpo espazioetako kalitatea neurtzeko POEMS eskalaren bi dimentsioen batez bestekoak erdietsi ziren; Jolasteko eta Ikasteko Eszenatokiak eta Programa dimentsioetakoak. Bi dimentsio horietara mugatu ziren, arestian esan bezala, bideratutako ekintzak faktore horietan berrikuntzak egitera mugatu zirelako. Horrenbestez, eta aipatutako dimentsioetan gertatutako aldaketen ulermen handiagoa izateko helburuz, Jolasteko eta Ikasteko Eszenatokien eta Programaren kalitatea ebaluatu zen ekintzaren aurretik (Kanpo espazioen kalitatea neurtzeko asmoz bideratutako 19 ikastetxeen artean) eta ostean. Ondorengo irudian ikus daitezke eskola bakoitzean gauzatutako esku-hartzearen aurreko eta ondorengo Jolasteko eta Ikasteko eszenatokien faktorearen batez besteko portzentajeak.

3. Irudia

Jolasteko eta Ikasteko Eszenatokiaren portzentajeen batez bestekoak esku-hartzearen aurretik eta ondoren.




Ikastetxea	1	2	3	4	5	6	7
Esku-hartzearen alde aurreko portzentajeen batez bestekoak	44.6	55.4	55.4	66.2	44.6	44.6	44.6
Esku-hartzearen osteko portzentajeen batez bestekoak	88.5	77.7	77.7	88.5	77.7	77.7	66.9

Goiko irudian ikus daitekeen bezala, orokorrean esku-hartzearen aurretik, Jolasteko eta Ikasteko Eszenatokiaren dimentsioaren kalitatearen batez besteko portzentajea ez zen oso altua izan (%50). Aldiz, berrikuntza proposamenak gauzatu ostean, ikus daiteke Jolasteko eta Ikasteko Eszenatokiaren kalitatearen areagotzea (portzentajek batez besteko %78.02a erakusten dute). Horrenbestez, eskoletan bideratutako hobekuntza proposamenek kanpo espazioaren dimentsio horretako kalitatea %28.02 areagotu zuten.

Jarraian, 4.irudian, eskola bakoitzeko Programa faktorearen batez besteko portzentajeak aurkezten dira esku-hartzearen aurretik eta ondoren.

4. Irudia

Programaren portzentajeen batez bestekoak esku-hartzearen aurretik eta ondoren.



Ikastetxea	1	2	3	4	5	6	7
Esku-hartzearen alde aurreko portzentajeen batez bestekoak	55.6	44.4	44.4	55.6	55.6	44.4	55.6
Esku-hartzearen osteko portzentajeen batez bestekoak	100	88.9	88.9	77.8	77.8	88.9	88.9

Goiko irudiak erakusten duen bezala, ikastetxeetan bideratutako hobekuntza proposamenei Programa faktorearen kalitatearen batez bestekoa %36.50 areagotu zuten, esku-hartzearen aurretik portzentajea %50.79koa zen bitartean, hobekuntza proposamenei ostean %87.29koa baitzen.



5. ONDORIOAK

- 5.1. Kanpo espazioaren diseinua eta erabilera
- 5.2. Haurren jolas soziala eta inplikazioa kanpo espazioan
- 5.3. Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzea
- 5.4. Lanaren mugak eta etorkizunerako ildoak

5. ONDORIOAK

5.1. Kanpo espazioaren diseinua eta erabilera

Ikerketa honen helburuetako bat zen Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren diseinua eta erabilera ezagutzea eta, bidenabar, bere kalitate orokorraren lehen hurbilpen bat egitea. Diseinuari dagokionez, emaitzek agerian utzi dute aztertutako kanpo espazioek ez zituztela betetzen adituek gomendatutako irizpideak (Kos eta Jerman, 2013; Luchs eta Fikus, 2013). Adibidez, kanpo espazio gehienak muga ziren haurrak bere trebetasun psikomotoreak frogan jartzeko, hainbat mailatako erronkei aurre egiteko edo naturarekiko elkarrekintza estua izateko (MacQuarrie et al., 2015). Muga izateko arrazoi nagusitzat har daiteke kanpo espazioen diseinua kirolean oinarritzea. Azken batean, futbola eta saskibaloia zelaiak nagusi ziren kanpo espazio gehienetan; horietako askotan, gainera, haurrei ematen zitzaizkien aukera bakarrak. Haur Hezkuntzaren helburu nagusietako bat haurarentzat jolas positibo, gustagarri eta aberatserako testuinguru egokia eskaintzea bada (Fisher et al., 2011), agerian gelditzen da aztertutako kanpo espazioen diseinua aldatzeko beharra.

Erabilerari bagagozkio, aztertutako ikastetxe gehienetan, kanpo espazioan emandako denbora hartu zen atsedenerako edo mugimendu beharrari erantzuteko tartetzat. Zeregin horietarako emandako denbora, gainera, 30 minutura mugatzen zen, besteak beste Eskandinaviako herrialdeetako ohiko erabileratik oso urrun (Kos eta Jerman, 2013; Little et al., 2012; Williams-Sieghfredsen, 2012), Oro har, esan daiteke ikastetxeetan balio eskasa aitortzen zitzaiola kanpo espazioari eta, ondorioz, oso urria zela ematen zitzaion erabilera. Irakasleek, oro har, ez zuten kanpo espazioa jolaserako, ikaskuntzarako eta haurren garapenerako goi mailako baliabide pedagogikotzat hartzen (Moser eta Martinsen, 2010). Ildo horretatik, beharrezkotzat hartzen da irakasleekin lan egitea, sensibilizazio eta prestakuntzaren bidez, kanpo espazioari bestelako erabilera emateko eta barne eta kanpo espazioen arteko jarraikortasun eta osagarritasuna sustatzeko (Kos eta Jerman, 2013; Ramos, 2004).

Diseinuaren eta erabileraren azterketatik abiatuta, ikerketaren lehendabiziko helburuak kanpo espazioaren kalitateari hurbilpena egitea ere asmo zuen. Emaitzek agerian utzi dute aztertutako kanpo espazioak kalitate ertainekoak zirela, beste ikerketa batzuetan izan bezala (Hestenes et al., 2011). Alde nabarmenak zeuden aztertutako kalitatearen dimentsioen artean. *Ingurune fisikoaren* eta kanpo espazioan sortutako *Elkarrekintzen* dimentsioak hoberen balioetsitakoak izan ziren bitartean, *Programa* eta *Irakaslearen rolar* dagozkien dimentsioak izan ziren puntuazio baxuenak lortutakoak. Edozein kasutan, kalitateari egindako hurbilpen honek baimendu zuen kanpo espazioaren dimentsio bakoitzaren egoera ezagutzea eta bertatik hobetzeko ildoak identifikatzea, zenbait autoreek iradoki bezala (Cosco et al., 2014; DeBord et al., 2005). Horrela, kanpo espazioak hobetzeko aukera ugari identifikatu ziren. Adibidez, elementu natural gehiago egon beharko lirateke kanpo espazioetan, haurren arteko elkarrekintzak eta gauza berriak ikasteko interesa sustatzen dituzten heinean (Klaar eta Öhman, 2014; Waters eta Maynard, 2010); haurrak elkartzeko espazioak txertatu beharko lirateke, bidezidorrak edo esertzeko tokiak kasu (Waller, 2010); irakasleak haurren elkarrizketei adiago egon beharko lirateke, beren interesak identifikatzeko eta egoki erantzuteko (Water eta Maynard, 2010); haurren interes anitzei erantzuteko proposamen anitzak eskaini beharko lirateke, kirol jardueratik harago (DeBord et al., 2005; MacQuarrie et al., 2015; Moser eta Martinsen, 2010); espazio zabalak espazio itxi eta gozoekin uztartu beharko lirateke (Moore, 2014; Moser eta Martinsen, 2010); edo kanpo espazioaren izaera pedagogikoa azpimarratu eta, ondorioz, erabilera areagotu beharko litzateke (DeBord et al., 2005; Kos eta Jerman, 2013).

Beraz, Haur Hezkuntzari gako izaera aitortuta (Gunnarsdottir, 2014; Karila, 2012; Pellegrini, 2011) eta bere kanpo espazioaren haurraren garapena sustatzeko gaitasuna onartuta (Cosco, Moore eta Smith, 2014; Gray et al., 2015; Veiga et al., 2016), ezinbestekotzat hartu behar da gure eremu geografikoko kanpo espazioetan hobekuntzak egitea. Hobekuntzek kanpo espazioaren diseinua eta erabilera hobetzea izan behar dute jomuga, ondorioz, beren kalitatea hobetzeko eta horrela, haurraren garapenean eta ikaskuntzan eragin positiboa izango duten testuinguruak sortzeko.

5.2. Haurren jolas soziala eta inplikazioa kanpo espazioan

Ikerketa honen bigarren helburua zen Haur Hezkuntzako kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzea eta generoaren arabera ezberdintasunik ote dagoen ezagutzea.

Kanpo espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioari dagokionez, espero bezala, emaitzek agerian utzi zuten zenbat eta jolas sozial gehiago, orduan eta inplikazio maila altuagoa dagoela. Gainera, talde jolasean gehien aritutako hurrek inplikazio maila altuagoa erakutsi zuten bakarkako jolasean eta paraleloan aritu zirenak baino. Emaitzek bat egiten dute beste ikerketa batzuetako emaitzekin, bertan jolas sozial asko erlazioatu baitzen ikaskuntza eta garapenari dagozkion emaitza hobekin (Coplan et al., 2014; Coplan, Wichmann, & Lagacé-Séguin, 2009; Veiga et al., 2016).

Hortaz, baiezia daiteke, eskolako kanpo espazioetan, batetik, hurrek inplikazio maila altuagoa erakusten dutela jolasak parte-hartze sozialagoa behar duenean; eta, bestetik, talde jolasa dela inplikazio altuena iragartzen duena. Horrenbestez, aintzat hartzen badugu inplikazioa dela, ongizate emozionalarekin batera, Haur Hezkuntzako ikasketa prozesuaren kalitatea eta eraginkortasuna zehazteko giltza (Laevers & Heylen, 2003), uste da Haur Hezkuntzako kanpo espazioa diseinatu behar dela parte-hartze soziala bultzatzeari begira eta, bereziki, talde jolasa sustatze aldera. Kanpo espazioetan talde jolasa sustatzeko estrategiei bagagozkie, kirolean oinarritutako diseinuak baztertu eta naturarekiko harremana baimentzen duten espazioak hobesten dira, *affordance* kontzeptuan oinarrituta (Gibson eta Pick, 2000). *Affordance*aren kontzeptuak erreferentzia egiten die norbanakoaren ekintzak estimulatu, erakarri eta babesten dituzten ingurune fisikoaren propietateei. *Affordance*a ematen da, batetik, haurrak aukera hautematen eta antzematen duenean eta bestetik, inguru fisikoa haurren garapen fasera egokitzen denean. Horregatik, *affordance*-a ingurune fisikoa eta norbanakoa har daitezke sistema interaktibo bereko partaidetzat. Coscoren (2007) hitzetan, "jolas eremuko objektu bat *eskalagarritzat* hartuko da honetan eskalatzea posible bada, *irristagarria* izango da irristatzea baimentzen badu, edo *kulunkagarria* norbait bertan

kulunkatu badaiteke” (128 orr.). Kontzeptuaren ildotik, kanpo espazioa diseinatu behar da affordance emateko aukera eskaintzeko moduan. Esaterako, bi haurrek hondarra, ura, belarra, makilak eta harriak erabiliko dituzte korta bat eraikitzeko, eta era berean, zapal dutako hainbat kolore eta formatako hosto batzuk erabiliko dituzte animaliak irudikatzen. Hurrengo egunean, jolas eremu berera itzul daitezke eta oraingo honetan jolasak erakarrirako beste haur batzuk batzen zaizkie. Haur berriek, jolasean batuz, ideia berriak gehitzen dituzte hala kortaren funtzionamenduaren inguruan (nor datorren eta nor doan, eta abar) nola animaliek egiten dutenaren inguruan (jaten dutenean edo lo egitean, esaterako). Gainera, haur horiek ere badituzte beraien emozio eta arazoak ebazteko bestelako gaitasunak. Konplexutasunean garatzeko bide horrek beraz, jolas sozialaren adibidetzat hartuta, inplikazioa eta ongizate emozionala bultzatzen ditu; eta hori gertatzea ez zen posible izango ura, belarra eta hostoek batetik, eta haurren irudimenak bestetik, sortutako affordanceagatik.

Jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzeaz gain, ikerketa honetan balizko genero ezberdintasunak ezagutu nahi izan ziren. Espero bezala, ez zen neska eta mutilen arteko ezberdintasunik aurkitu kanpo espazioko inplikazio mailan. Emaizta horiek bat datoz Alemaniako eskoletako emaitzekin (Ulich & Mayr, 2002). Hala ere, generoak efektu moderatzailea zuela aurkitu zen talde jolasaren eta inplikazioaren artean. Emaiztek erakusten dute talde jolasak inplikazio maila altuagoa iragartzen duela hala mutilengan, nola neskenengan. Edonola ere, talde jolasaren frekuentzia nesken artean mutilen artean baino txikiagoa izan bazen ere, ikusi da nesken artean zenbat eta talde jolas maiztasun handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela inplikazioarekiko duen efektu positiboa.

Emaizta horiek justifikatzeko azalpen posible bat izan daiteke gure eremu geografikoko eskoletako kanpo espazioen ohiko konfigurazioa. Arestian adierazi bezala, aztertutako kanpo espazioen diseinuak, batez ere, jendartean presentzia handiena duten kirolei begirakoak dira. Esan daiteke kanpo espazioen ohiko diseinuak haurrak bultzatzen dituela futboleak eta saskibaloian aritzera. Nagusiki mutilak izan ohi dira jarduera horietan parte-hartze handiena izaten dutenak. Kanpo espazioa era horretan diseinatzeak dakar mutil askoren eta bereziki nesken jolasa mugatzea, hala jolas motetan, nola

espazio fisikoan. Espazio urria izateak, gainera, jolasaren erakargarritasuna baldintza dezake. Ondorioz, nesken arteko talde jolasa suertatzea zailagoa da eta beraz, gehiago aritzen dira bakarkako jolasean eta jolas paraleloan. Talde jolasak hurraren garapenean duen garrantzia aintzat hartzen badugu, azalpen saiakera honek, berriz ere garrantza kanpo espazioko diseinuan aldaketak egitera.

Ulertzen dugu kanpo espazioak genero berdintasuna eta neska eta mutil guztien inklusioa bermatu behar dituela. Horretarako, uste dugu Haur Hezkuntzako neska eta mutil guztiek eskubidea dutela jolaserako eta ikaskuntzarako aukera anitzak eskaintzen dituen kanpo espazio naturalak erabiltzeko (DeBord et al., 2005; Moser & Martinsen, 2010). Kiroletatik aldendu eta baldintza horiek betetzen dituzten kanpo espazioen diseinuei, kanpoko espazioaren potentzialtasuna baliatzeko erabilera handiagoa gehituz gero, neska eta mutilen parte-hartze soziala sustatuko da eta, horrenbestez, garapenerako eta ikaskuntzarako gako den inplikazioa bultzatuko da.

5.3. Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzea

Ikerketa honen ondorio nagusienetako bat izan da gure eremu geografikoko kanpo espazioen diseinua eta erabilera hobetzeko beharra. Iradoki berri den bezala, haurren jolaserako proposamen anitzak eskaintzen dituen testuinguru naturala aldarrikatzen da, hainbat autoreren postulatuei jarraiki (DeBord et al., 2005; Cosco, 2007; Kos eta Jerman, 2013; Luchs eta Fikus, 2013). Ikerketaren hirugarren helburuak, hain zuzen, ondorio nagusi horretan oinarrituta, Haur Hezkuntzako kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatzea, gauzatzea eta beren emaitzak ebaluatzeari egiten dio erreferentzia.

Zenbait ikastetxetako kanpo espazioen diseinuetan egindako berrikuntzek aditzera ematen dute nabarmen hobetu zirela bertako jolasteko eta ikasteko eszenatokiak eta ikastetxeetako kanpo espazioetako programa. Halaber, parte-hartzaileek positiboki baloratu zuten bideratutako prozesua. Ongi baloratzeko arrazoietakoa bat izan daiteke parte-hartzaileek, beren interesetatik (Miranda, 2002), berrikuntza prozesuaren protagonismoa hartu izana (Bolívar, 2014; Castro et al., 2014). Aipatzekoa da, gainera, zuzendaritzaren inplikazioaz gain (Imbernon, 2007), familien presentzia funtsezkoa izan zela berrikuntzetan eta, ondorioz, eskola-kultura eta eskola-nortasuna indartzeko bidea jarri dela (Sánchez eta López, 2010). Helduak eta haurrak kanpo espazioetan barneratutako berrikuntzekin pozik agertu ziren. Bideratutako behaketen emaitzetan ikus zitekeen haurrek interes handiz jaso zituztela proposamen berriak. Gainera, azpimarratzekoa da generoaren ekitatea zaindu zela barneratutako proposamen guztietan.

Hobetzeko ekintzen ostean, espero bezala, jolasteko eta ikasteko eszenatokien eta programaren dimentsioek bete zituzten adituek kalitate altuko kanpo espazioen diseinuei esleitutako irizpideak, elementu naturalekin prestatutako espazioak egotea kasu (Waters eta Maynard, 2010). Baliabide horiekin pentsa daiteke affordancea emateko aukerak ugaldtu zirela eta, horrenbestez, jolas sozial aberatsagorako testuinguruak zabaldu (Cosco, 2007).

Bestalde, prozesuan parte hartu zuten irakasleek aditzera eman zuten kanpo espazioaren balioaren inguruan izandako hautematearen aldaketa. Esku-hartzearen ostean, kanpo espazioari balio handiagoa ematen ziotela aitortu zuten, baita kanpo espazioaren eragin positiboa irudikatzeko ere. Irakasleen hautemateek beren ekintza eta jarreratan eragina dutenez (McClintic eta Petty, 2015), egindako esku-hartzeak soka luzeagoa izan dezake. Eskoletako kanpo espazioen diseinuan eta erabileran hobekuntzak txertatzea pauso garrantzitsua izan da, kanpo espazioa hezkuntzako baliabide garrantzitsu gisa kontsideratzeko eta hurrek ikastetxe barnean eta kanpoan ematen duten denbora orekatzeko, jadanik Eskandinavian (Kos eta Jerman, 2013; Little et al, 2012; Williams-Sieghfredsen, 2012), eta Erresuma Batuko (O'Brien, 2009;) eta Australiako (Elliot eta Chancellor, 2014) hainbat eskolatan egin bezala. Horrekin guztiarekin, espero da kanpo espazioa izatea neska eta mutil guztien jolas positibo, gustagarri eta aberatserako testuinguru egokia (Fisher et al, 2011).

5.4. Lanaren mugak eta etorkizunerako ildoak

Atal honekin amaitu aurretik, zehaztu nahi dira ikerketak dauzkan zenbait muga eta etorkizunari begira iradokitako lan ildoak. Lehenik, nabarmena da lortutako emaitzek barne baliotasun handiagoa izango zutela diseinu heterogeneoagoko kanpo espazioak jasotzen dituen lagin handiagoeekin errepikatuz gero. Aniztasun horrek baimenduko luke kanpo espazioaren kalitateak haurren jolas sozialean eta inplikazioan duen efektua aztertzea. Gure eremu geografikoko ikastetxeetako kanpo espazioen antzekotasunak ikusita, interesgarritzat hartzen da oso bestelako diseinu eta erabilerak dituzten herrialdeekin ikerketa konparatiboa egitea. Lan horrek aukera emango liguke jolas soziala eta inplikazioaren arteko erlazioa beste ikuspegi batetik aztertzea eta genero ezberdintasunak izaera ezberdineko errealitateetan ezagutzea.

Bigarrenik, ikerketaren mugatzat hartu behar da eginiko behaketa lana. Nahiz Egindako behaketa lana egokitzen hartzen dugu tresnen irizpideak jarraituta egin zelako. Hala ere, ez dago erabateko adostasunik behaketen frekuentzia eta iraupenak zehazterakoan (Fabes, Martin & Hanish, 2009). Lan honetan eguraldiak eta kanpo espazioaren ohiko erabilera urriak eragindako muga izan denez, etorkizuneko ikerketetan, interesgarritzat hartzen dugu behaketen frekuentzia eta iraupena handitzea. Gainera, izaera longitudinalagoa duen ikerketa bat aurrera eramateak aukera emango liguke Haur Hezkuntza osoan zeharreko azterketa egiteko. Ildo beretik, Haur Hezkuntza 0-6 etapa dela iritzita, etorkizunari begira garrantzitsutzat hartzen dugu egindako azterketa edo berriak 0-3 etapara ere hedatzea.

Bestalde, ikerketa honek besteak beste jolas soziala hartu du hizpide. Ulertzen dugu jolasa bera jolas soziala baino gehiago dela. Horregatik, etorkizunari begira, egindako grabazioak jolasaren izaera kognitibotik aztertzea interesgarritzat hartzen dugu. Halaber, ez dugu baztertzen jolasa beste ikuspegi batzuetatik ere aztertzea.

Azkenik, lan honen azken helburuari jarriki, saiakera egin da hainbat ikastetxetan kanpo espazioak hobetzeko ekintzak proposatzen, gauzatzen eta beren emaitzak neurtzen.

Asmo xumeko esperientziak egin ziren, jakin badakigulako benetako berrikuntzek soka luzeagoko lana eskatzen dutela. Horregatik, besteak beste, egindako berrikuntzak fokatu ziren kanpo espazioko jolasteko eta ikasteko eszenatokien eta programaren hobekuntzan. Alde batera utzi ziren, adibidez, irakaslearen rolaekin lotutako aldagaiak. Etapa guztietan eta bereziki honetan, haurren eta irakasleen arteko harremana funtsezko aldagai dela jakinda (Barandiaran et al., 2015), etorkizunari begira garrantzitsua iruditzen zaigu irakaslearengan arreta jartzea. Oso interesgarria iruditzen zaigu, adibidez, irakaslearengan aldaketak eragiteko moduetan arakatzea. Era berean, uste dugu ekarpen garrantzitsua litzatekeela kanpo espazioan irakasleak haurren jolasean eta inplikazioan daukan eragina aztertzea. Era honetako ikerketak lagungarriak izan daitezke irakasleak kanpo espazioaren garrantzia aitortzeko eta haurren garapenean duen eraginaz hausnartzeko.

Aipatutako mugak onartuta, gure uste xumean ikerketa honek ekarpena egiten dio Hezkuntza komunitateari. Batetik, lortutako emaitzek aukera ematen dute eskolako kanpo espazioak haurren garapenean duen garrantzia azpimarratzen duten teoriak indartzeko. Halaber, gure eremu geografikoan kanpo espazioetan berariaz fokatutako lanen hutsuneari erantzuten saiatzen da. Ildo horretatik, haurren garapenerako garrantzitsua den gai baten inguruan informazioa eskaintzen du, gaur egungo egoera deskribatuz, bertan emandakoaren arriskuak azaleraziz eta egoera gainditzeko proposamenak eginez. Ildo horretatik, uste dugu lana baliagarria dela kanpo espazioen gaia indar handiagoz jendarteratzeko eta horrekiko hausnarketa sustatzeko. Nahiko genuke hausnarketak ekartzea neska eta mutilen jolas sozial aberatserako aukera ematen duten kanpo espazioak. Horretarako, espero dugu arduraren dugun guztiok (familia, eskola, unibertsitatea eta Administrazioa) haurren garapen osasuntsua sustatzeko bidean bat egitea.



6. ARGITALPENAK

6.1. Tantak (In-recs, 4. kuartila, Inpaktua: 0.00): Ikastetxeetako kanpo espazioen kalitatea Haur Hezkuntzan

6.2. Early Education & Development (JCR, 2. kuartila, Inpaktua: 1.183):
Preschool children's social play and involvement in the outdoor environment

6.3. Participación Educativa (In-recs, 2. kuartila, Inpaktua: 0.085):
Mejora del espacio exterior desde la participación comunitaria

6. ARGITALPENAK

Orain arte, gaiaren kokapena eta justifikazioa egin dira, eta horren ostean arazoaren planteamendua definitu da, ikerketa honetarako planteatutako helburu eta hipotesiak azaleratzearekin batera. Halaber, ikerketa aurrera eramateko jarraitutako metodoa zehaztu da eta bertatik eratorritako emaitzak adierazi dira. Azkenik, ikerketaren ondorio nagusiak azaleratu dira.

Oraingo honetan, aipatutako horiek guztiek emandako hiru ekarpen aurkeztu nahi dira. Argitalpen bilduma gisa aurkeztutako tesia den heinean, hala aurkezteko Doktorego programako araudiaren irizpideak betetzen dituzten hiru artikulua aurkeztuko dira jarraian. Hortaz, argitalpen bakoitzari dagokion informazioa (artikuluaren laburpena eta aldizkariaren ezaugarriak) eskainiko da artikulua bakoitzaren aurretik.

Ikerketa honen lehenengo helburua Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren diseinua eta erabilera ezagutzea eta bere kalitate orokorraren lehen hurbilpen bat egitea izanik, doktorego-tesi honetako lehendabiziko artikulua helburu horri atxikitzen zaio. Gaur egungo kanpo espazioen nolabaiteko errealitatea deskribatzen da Tantak aldizkarian argitaratutako "Ikastetxeetako kanpo espazioen kalitatea Haur Hezkuntzan" artikuluan.

6.1. Tantak (In-recs, 4. kuartila, Inpaktua: 0.00):
Ikastetxeetako kanpo espazioen kalitatea Haur Hezkuntzan

Ikastetxeetako kanpo espazioen kalitatea Haur Hezkuntzan

Nekane Miranda Franco, Iñaki Larrea Hermida, Alexander Muela Aparicio

Ikerketa lan honetako helburua Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren kalitatea aztertzea izan zen. Ikerketan hartu zuten parte Gipuzkoako 19 ikastetxek, 3 eta 6 urte bitarteko 1.156 haurrek eta 51 irakasleek.

Preschool Outdoor Environment Measurement Scale (POEMS) eskalaren bitartez lortutako emaitzek erakutsi zuten ikastetxeen kanpo espazioetako batez besteko kalitatea ertaina zela. Ikastetxeek ingurune fisiko egokia erakusten zuten eta elkarrekintzak bultzatzeko aukera zabalak eskaintzen zituzten. Edonola ere, kanpo espazioa ez zen haurraren garapena bultzatzeko eta ikaskuntza aukerak areagotzeko prestatutako baliabide pedagogiko gisa ulertzen. Horregatik azpimarratzen da espazio horretaz hausnartzeko beharra gainerako ikaskuntza praktika eta baliabideen inguruan egiten den bezala, kanpo espazioaren erabilera curriculumean eta hezkuntza proiektuan barneratuz.

Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria

ISSN:0214-9753

Tantak Aldizkaria Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasleen Unibertsitate Eskoletako eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle talde baten ekimenez, eta UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren laguntzaz, jaio zen. Erronka nagusia, alde batetik, izaera akademiko-zientifikoa edukiko zuen publikazio bat abian jartzea zen, hezkuntza arloaren gaineko hausnarketan sakontzea ahalbidetuko zuena; beste aldetik, EHUren barruko zein kanpoko hezkuntza adituen artean gero eta handiagoa zen eskaera bati erantzutea bilatzen zen: hezkuntza-zientzia euskaraz egitea.

Tantak sei hilabeterik behin argitaratzen den aldizkari espezializatua da, paperez nola formatu elektronikoan. Hezkuntzaren maila guztietako euskal hezitzaileei eskaintzen zaie bereziki UPV/EHUK sostengatzen duen publikazioa, bai eta irakasleen unibertsitate eskoletako ikasleei ere. Hezkuntzaren eta Pedagogiaren arazo orokorrez gain, didaktika espezifikoen gaineko ikerlanak ageri dira bertan, bai eta euskararen, elebitasunaren zein eleaniztasunaren inguruko lan esanguratsuak ere.

Aldizkariaren inpaktua 0.0

Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria **In-recs** datu basean indexatua dago, **4. Kuartilean**, hain zuzen ere.

Tantak aldizkarian argitaratzen diren artikuluen laburpenak Consejo Superior de Investigaciones Científicas delakoak (CSIC) sortutako ISOC, REDINED, DIALNET eta Latindex katalogoko datu-baseetan agertzen dira.

Ikastetxeetako kanpo espazioen kalitatea Haur Hezkuntzan

*Nekane Miranda Franco
Iñaki Larrea Hermida
Alexander Muela Aparicio*

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea
Mondragon Unibertsitatea

GAKO-HITZAK: kanpo espazioa, Haur Hezkuntza, Hezkuntzaren kalitatea, curriculum, Hezkuntza Proiektua

1. SARRERA

1.1. Kanpo espazioa eta haurraren garapena

Haur Hezkuntzako etapak garrantzi handia dauka haurraren garapenean, hala epe motz nola luzera begira (NICHD Early Child Care Research Network, 2006). Haurraren ongizatea bultzatzeko duten moduaren arabera, ikastetxeak garapenerako mesedegarri eta aberasgarriak izan daitezke, hainbat dimentsiotan eragiteko gaitasuna baitute: arlo kognitiboan eta hezkuntzan, arlo sozialean, motorrean... Kontrako norabidean, haurraren garapenari begirako arrisku faktore ere bihur daitezke, adibidez, zentroak Haur Hezkuntzaren ikuspegia soilik eduki instrumentaletan oinarritzen badu edo bere Hezkuntza Proiektuak haurren aparteko gaitasunak aintzat hartzen ez baditu (ikuspegi orokor baterako, ikus Clarke-Stewart eta Allhusen, 2005).

Ikerketa ezberdinek agerian utzi dute haur eskolaren kalitatearen eta haurraren garapenaren arteko erlazioa (Belsky, 2006; Cryer, 2006; Huntsman, 2008). Azpimarratu behar da ikerketa gehienek kalitate hori ikertu dutela gela barruko dinamikak aztertuz (NICHD Early Child Care Research Network, 2005; Peisner-Feinberg, Burchinal, Clifford, Culkin, Howes, Kagan, eta Yazjian, 2001; Vandell, Belsky, Burchinal, Vandergrift eta Steinberg, 2010; Vermeer, Groeneveld, Larrea, van IJzendoorn, Barandiaran eta Linting, 2010). Aitzitik, gaur egun, gero eta gehiago dira haurraren ongizatearen eta haur eskoletako kanpo espazioaren kalitatearen arteko

erlazioan interesa erakusten duten ikerlariak. Duela urte batzuk Moorek (1986) azpimarratu bezala, ongi diseinatu eta estimulagarriak diren kanpo espazioek positiboki eragin dezakete haurren garapen globalean. Hortaz, arreta berezia eskaini behar zaio espazio horien konfigurazioak haurren portaeran eta bertan sortzen diren ikaskuntza prozesuetan duen eraginari (Greenman, 2005; Tovey, 2007).

Bestalde, hainbat ikerketek azpimarratzen dute kanpo espazioek betetzen duten zeregin edo funtzio orekatzailea, batez ere hirietan kokatutako hezkuntza zentroetan (Eliot eta Davis, 2008), edo bizimodu sedentarioa duten haurrengan (Temple, Naylor, Rhodes eta Wharf-Higgins, 2009). Izan ere, zenbait autorek (Louv, 2008; Nedovic eta Morrisey, 2013; Richardson, 2008) nabarmentzen dute kanpo ingurune eta naturarekiko loturaren eragina haurren garapen fisiko eta kognitibo egokirako.

Soka beretik, beste hainbat ikerketek aditzera eman dute haur eskoletako kanpo espazioek hezkuntzarako funtzio potentziala betetzen dutela eta haurren garapenerako lagungarriak direla. Coscok (2007), adibidez, azpimarratzen du kalitate ezin hobea duen kanpo espazioak sustatzen duela haurrak ikaskuntza prozesuan aktibotasun eta inplikazio maila handiagoa izatea. Beste ikerlari batzuek adierazten dute aipatutako kalitateak behar bezala eragiten duela kontzentrazio eta arreta gaitasunean (Berman, Jonides eta Kaplan, 2008). Halaber, Waters eta Maynardek (2010) ondorioztatzen dute elementu naturalekin (ura, lurra, egurra, hondarra, enborrak...) osatutako kanpo inguruneak haurren arteko interakzioak ahalbidetzen dituela, eta bide batez, haurren interesak haien ikasketa prozesuaren abiapuntutzat hartzea baimentzen duela. Oinarri honen bitartez, kalitatezko kanpo espazio batek aukera eskaintzen du haurrak haien ekimenez elkartzeko, haien artean jolasteko eta identitatea elkarlanean eraikitzeko (Waller, 2010). Era berean, kalitatezko kanpo espazioak erlaziozatu dituzte haurren jolas sortzailegoekin, inplikazio handiagoarekin eta gatazka gutxiagorekin (DeBord, Hestenes, Moore, Cosco eta McGinnis, 2005). Aipatzekoa da DeBorden taldeak erlazio horren berri izan zuela *Preschool Outdoor Environment Measurement Scale*, POEMS, tresna garatu eta aplikatzerakoan. Halaber, POEMS erabilitako beste ikerketa batean, barne eta kanpo espazioen kalitatea haurren esperientzia emozionalekin lotu dute (Hestenes, Kintner-Duffy eta Crosby, 2011). POEMS bera ere baliatu da kanpo espazioetan aldaketak egin ostean egindako berrikuntzen ondorioak aztertzeko (Cosco, Moore eta Smith, 2014). Coscok, Moore eta Smithen lanean (2014), POEMS eskalan emaitza altuak zituzten zentroetako zuzendariek haurren jokabideen pertzepzio baikorragoa zeukaten. Aipatutakoaren ildotik, Canningek (2010) gaineratzen du kanpo espazio egoki bat mesedegarria dela haurrak irudimenezko eta jolas sortzaileetan murgiltzeko, haien gaitasun komunikatiboak garatzeko eta beste haurrekin zein helduekin erlazio positiboak eraikitzeko. Hortaz, iturri anitzetatik azpimarratzen da ikastetxeetako kanpo espazioaren potentziala arlo motorra, kognitiboa eta

sozialaren garapen osasuntsua sustatzeko. Horregatik hain zuzen, Moser eta Martinsenek (2010) aldarrikatzen dute kanpo espazioa jolaserako, ikas-kuntzarako eta haurren garapenerako baliabide pedagogiko gisa hartu behar dela, Haur Hezkuntzako gainerako espazioak bezala.

1.2. Esperientzia berritzaileak kanpo espazioan

Ikerketen ahotsetatik haratago, Haur Hezkuntzako makina bat profesionalak egin du bat kanpo espazioa baliabide pedagogikotzat hartzearen aldarrikapenarekin. Beraien praktikaren analisia oinarritzat harturik, profesional askok egin dute gogoeta Haur Hezkuntzako kanpo espazioetako erabilera eta konfigurazioaren gainean. Kataluniako Rosa Sensat erakundeak adibidez, gogoz jorratu zuen gaia, bereziki, 2002an Penny Ritscher (*El Jardín de los Secretos* liburuaren egilea) euren artean izan zutenetik. Rosa Sensatek eginiko lanaren erakusle dira Rosa Vidiella edo Carme Colsen ekarpenak besteak beste. Batetik, Rosa Vidiellak (2004) kanpo espazioaren izaera pedagogikoa aldarrikatzen du. Bestetik, Carme Colsen kasuan, *El Safareig* ekimena jarri zuen abian kanpo espazioen gaineko gogoetan zentzuzko laguntzeko eta hortik esperientzia berritzaileak abian jarri ahal izateko.

Kanpo espazioen inguruko gogoetaren harira, azpimarratu behar dira beste hainbat profesionalen ekarpenak eta horien aplikazioa. Adibidez, Dolores Ramosek (2004) adierazten du proiektu pedagogikoa barne zein kanpo espazioen diseinuarekin lotzearen garrantzia. Erlazio horren adibide da El Cargoll zentroko kanpo espazioaren berregituraketa (Monferrer eta Pallerols, 2011). Olga Conde eta José Antonio Pinzolasek (2005) gaineratzen dute espazioak diseinatu behar direla hezkuntza komunitatearekin elkarlanean. Ildo horretatik, aipatzekoa da, hezkuntza komunitateko kide anitzen elkarlanari esker, Els Belluguetseko Haur Hezkuntza zentroan burututako proiektua (Els Belluguetseko Haur Hezkuntzako Taldea, 2010). Gogoeten hari beretik, María Teresa Sogasek (2004) dio kanpo espazioa toki aproposa izan daitekeela haurren garapenerako benetan aberasgarriak diren erlazio eta interakzioak emateko. Azkenik, Plateroko Haur Hezkuntzako taldeak eta Raúl Sanchezek (2006) kanpo espazioaren baliagarritasuna azpimarratzen dute inguruko bioaniztasuna ezagutzeari begira. Euren ustez, kanpo espazioak haurrei laguntzen die ohar daitezen izaki biziek eta inguruneak elkarri eragiten diotela eta kontzientzia daitezen ingurunearen zaintzaren garrantziaz.

1.3. Kanpo espazioa testuinguru hurbilean

Ikus daitekeenez, esparru ezberdinetako ikertzaile eta profesionalak bat egiten dute Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren kalitateak garapenerako

duen garrantzia aldarrikatzean zein gaiaren inguruan ikertzearen beharra defendatzean. Hala eta guztiz ere, gure testuinguru hurbilean urriak dira Haur Hezkuntzako kanpo espazioaren kalitatea aztertu duten ikerketak. Adibidez, Larrearen (2007) eta Jauregiren (2009) doktorego-tesietan espazioaren antolaketa hizpide izan zen. Barruko gelen espazioak sakonago aztertzen baziren ere, kanpo espazioaren konfigurazioa eta erabileraren aldarrikatzen zuten autore biek. Lan horietan oinarriturik, kanpo espazioaren inguruko gogoeta egin dute autoreek. Batetik, Larreak eta Barandiaranek (2012) kanpo espazioaren baliagarritasuna defendatzen dute haurren garapena aberaste aldera. Bestetik, Jauregik (2012) defendatzen du espazio eta arkitektura baldintzak egokitu beharko liratekeela eta irakasleen baldintzak ere hobetu beharko liratekeela haurren kanpoko jolasa aberasteko. Gogoeten harira, Alfredo Hoyuelosek (2013) editatutako *Haur Hezkuntza. Zenbait ahotsetarako abestia* liburuan ere espazioaren konfigurazioa jorratzen da. Kasu honetan ere, espazioaren antolaketa Haur Hezkuntzako gatzat hartzen da.

Edozein kasutan, testuingururik hurbilenean eginiko lan horietan arreta handiagoa jarri da barne espazioaren antolaketan eta bere erabileran. Hala ere, barne espaziotik eratorritako gogoetek bat egiten dute beste testuinguru batzuetako ikerlari eta profesionalen ekarpenekin. Dena den, gako izaera aitortu arren, testuinguru honetan kanpo espazioen kalitatea ez da sakonegi aztertu. Horregatik, ikerketa honen helburu nagusia da Haur Hezkuntzako zenbait kanpo espaziotako dinamika berariaz aztertzea, modu horretan, gaur egun kanpo espazioen konfigurazioaz eta erabileraz informazio gehiago izan eta etorkizunari begira egon daitezkeen hobetzeko aukerak identifikatu ahal izateko.

2. METODOLOGIA

2.1. Parte-hartzaileak

Ikerketa aurrera eramateko Gipuzkoako 19 kanpo espazio aukeratu ziren, parte hartzeko borondatea erakutsi zutenen artean. Kanpo espazio horiek izaera anitzeko ikastetxeetan kokatzen ziren. Are zehatzago, espazio horietatik 9 eskola publikoetan lekutzen ziren, tartean landa eremuko eskola batean. 7 ikastolen elkartearen baitakoak ziren eta 3 ikastetxe erlijiosoetan zeuden.

Halaber, ikerketan parte hartu zuten 19 kanpo espazio horien erabileran egiten duten 1.156 haur eta 51 irakaslek. Haurrei dagokienez, parte hartutako guztiak 3-6 adin tartekoak ziren; are zehatzago, 3-4 urte bitarteko 380 haur; 4-5 urteko 372 eta 5-6ko 404. 1.156 haur horietatik, 598 neska eta 558 mutil ziren. Irakasleei dagokienez, 50 emakume eta gizon bakarra zeuden, 41.1 urteko batez besteko adinarekin ($DT = 12.3$)

eta batez besteko 14.6 urteko eskarmentuarekin ($DT = 11.3$). 51 irakasle horietatik 17 profesional 3-4 urteko haurren tutore ziren eta 16 irakasle 4-5 urtekoen tutore. 5-6 urteko hurrekin, berriz, 17 irakasle ari ziren tutore lanetan eta, azkenik, irakasle bakarra ari zen 3-6ko hurrekin aldi berean.

Haur eta profesional horiek erabiltzen zituzten kanpo espazio horiek lekutzen ziren hainbat neurritako herrietan. Herri horietako biztanle kopurua aintzat hartzen badugu, 5.000 biztanle azpitiko herrietan kokatzen ziren 6 kanpo espazio; 3, 5.000 eta 10.000 biztanle arteko herrietan; 7 kanpo espazio 10.000 eta 15.000 artekoetan, eta, azkenik, 3 15.000 biztanletik gorako herri edo hirietan. Beraz, izaera ezberdineko herri txiki, ertain eta handietako kanpo espazioen kalitatea aztertu da ikerketa honetan.

2.2. Tresnak

Ikastetxeetako kanpo espazioaren ebaluaziorako eskala (*Preschool Outdoor Environment Measurement Scale*, POEMS; DeBord, Hestenes, Moore, Cosco eta McGinnis, 2005). POEMS eskalak Haur Hezkuntzako kanpo espazioetako kalitatea neurtzen du. Behaketaren bidez, kanpo espazioaren konfigurazioa eta erabilera aztertzen dira. Horretarako, behaketa egiten da haurrak eta irakasleak kanpo espazioa erabiltzen ari direla. Eskalaren aplikaziorako behaketak 45 eta 60 minutu arteko iraupena dauka. Behaketa bidez jaso ez diren itemen inguruko informazioa parte hartutako irakasleei galdetuz eskuratzen da. Behaketa eta elkarriketa bidez, dimentsioetako itemak betetzen diren edo ez aztertzen da. Betetze mailaren arabera, dimentsio bakoitzaren ehuneko kalkulatzen da, Otik 100era bitartean. Bestalde, POEMS eskala 56 item ezberdinez osatuta dago; 5 dimentsiotan banatutako 56 itemetan hain zuzen: (1) *Ingurune fisikoa*, (2) *Elkarrekin-tzak*, (3) *Jolasteko eta ikasteko eszenatokiak*, (4) *Programa* eta (5) *Irakaslearen rola*.

Lehenik, *Ingurune fisikoa* izeneko dimentsioak (13 item) haur hezkuntzako kanpo espazioaren ezaugarrien kalitateari egiten dio erreferentzia. Kalitate altuko ingurune fisikoak ekintzarako eszenatoki bat eta haurren ikaskuntza eta jolasa suspertzea eskaintzen du. Bertan, haurrek beraien gaitasunak azalertzeko aukera izango dute eta erronka eta estimulazio maila ezberdinak eskainiko zaizkie naturarekin harreman zuzenean haziz eta heziz. Bestalde, haurrek ingurune seguru batean arriskuak kudeatuko dituzte, auto-erregulatu. Halaber, aukera ugari eskainiko zaizkie: ikeretzeko, irudimena sustatzeko, identitate kulturalaren zentzuaz jabetzeko edo beste hainbat kompetentzia garatzeko. Baina hori guztia gerta dadin, ingurune fisiko hori integratu behar da bertako eraikinekin eta beste hainbat zerbitzurekin, aparkatzeko txokoak eta sarrerarekin kasu. Interko-

nexio horiek baimentzen dute jarraitasuna eta kohesioa egotea barne eta kanpo espazioen artean. Era berean, arreta berezia eskaini behar zaio zirkulazioari, trafikoaren patroiei eta instalazioetatik gertu dauden eremu edo txoko guztiak aintzat hartuz. Aparkatzeko tokiak diseinatzeko ere kontutan izan behar dira oinezkoen segurtasunerako neurriak eta kokalekuetan saihestu behar dira kotxeen gas jarioen eraginpean jartzea, esaterako. Dimentsio honen baitako itemen adibideak dira ondoko hauek: «Kanpoko jolastokia eta ikaste eremuak babestuta edo indargetuta daude inguruko aparkalekuetako kotxeen keengandik eta arriskuengandik (adib. zuhaixken bidez indargetuta, hesi irmoa, edo aparkatutako kotxeengandiko distantzia)»; «Kanpo espaziorako sarbidea erraza da haurrentzat, premia be-reziak dituztenak barne».

Bigarrenik, *Elkarrekintzak* dimentsioak (13 item) aintzat hartzen ditu haurren kalitatezko elkarrekintzak kanpo espazioko objektu eta material naturalekin, berdinkideekin eta irakasleekin. Irakasle eta familien arteko elkarrekintzak ere aztertzen dira. Kalitate altuko espazioek baimentzen dute haurrek berdinkideekin, helduekin edo eta objektu eta material naturalekin (jostailuak, animali txikiak, landareak, harriak, hondarra, eta abar) elkarrekintzan arituz ikastea. Dimentsio honen itemak dira ondoko adibide hauek: «Gutxienez haur bat behatu da ingurune naturala ukitzen, hautematen eta zentzuen bidez esploratzen; «Irakasleak jakin-mina eta esplorazioa modelatzen ditu ikaskuntza berria eman dadin laguntzeko».

Hirugarrenik, *Ikasteko eta jolasteko eszenatokiak* dimentsioa (13 item) oinarritzen da jolasteko eta ikasteko espazioen eta materialen kalitatean. Kalitate altuko testuingurutzat hartzen dira jarduera espezifikoak edo gai komunak (jolas aktiborako txokoa, hizkuntza txokoa, hondarra eta ura, baratzea, eta abar) sustatzeko espazioak bereizten dituzten kanpo espazioak eta bertan material aproposak dituztenak. Materialei dagokienez, aintzat hartzen dira hala euren izaera (naturala, fabrikatutakoa, higikorra, soltea...) nola beren egokitasuna eta funtzioa. Halaber, material natural edo ez natural dituzten ere aztertzen da. Dimentsio honi dagokionez, ondoko item adibideak daude: «Jolas materialak eta jostailuak haurren eskura daude eta haurrek jolasteko modukoak dira; «Biltegia egokia da kanpoko jolasentzako, pieza solteentzako, eta hornigaientzat».

Laugarrenik, *Programa* dimentsioak (9 item) kanpo espazioaren integrazio curricularrari egiten dio erreferentzia. Kalitate altuko programetan kanpo espazioko jarduera gelakoaren hedapen gisa kontenplazten da, curriculumean erabat integratua. Horrek adierazten du gogoeta egin dela eta baliabide pedagogikotzat hartu dela kanpo espazioa, nolabait curriculumean txertatuz. Beraz, kanpo espazioari ahal bezain besteko etekina ateratzeko gogoeta egitea baloratzen da, modu horretan, bere garapenerako eta ikaskuntzarako aukerak baliatuz: ikerketarako, esploraziorako, jarduera fisiko zein mugimendu askerako, elkarrekintza sozialetarako, hizkuntzaren gara-

penaren sustapenerako, negoziazio eta kooperaziorako, material ezberdinekin esperientziak izateko, eta abar. Dimentsio honen itemak dira ondoko adibide hauek: «Barrualdearen/kanpoaldearen zein kanpoaldearen/barrualdearen arteko loturaren ebidentziak daude behatutako egunean»; «Kanpoko ekintzen programak matematika eta zientzia ekintzak laguntzen ditu behaketa egunean».

Bosgarrenik, *Irakaslearen rola* dimentsioak (8 item) erreferentzia egiten dio hezkuntza komunitatearen (irakasle, familia eta komunitate baliabideak) kalitatezko kanpo espazioak sustatzeko inplikazio mailari. Komunitatearen partaidetzarekin batera, azpimarratzen da irakaslearen rolaren eta konpromisoaren garrantzia ikaskuntzarako kanpo espazioen diseinu berriak eskaintzeko. Irakaslearen zereginen baitan, kokatzen dira, besteak beste, ondoko elementuak: haurrei segurtasuna bermatzea, autonomia baimentzea jarrera sarkor edo intrusiborik gabe, haurren ikaskuntza sortzaile-rako aukerak sustatzea... Dimentsio honen adibideei dagokienez, ondokoak har daitezke: «Irakasleek kanpoko ekintzetan familien parte hartzea errazten dute»; «Irakasleek kanpoan jolas egitearen balioan hezten dituzte gurasoak eta balio hori komunikatzen diete, ingurune naturalen eta jarduera fisikoaren beharra barne (dokumentazioa)».

POEMS tresnak, bere bost dimentsio horiekin, barne trinkotasun ego-kia erakusten du. *Programa* eta *Irakaslearen rola* aldagaietan izan ezik, Cronbachen alfabaren balioak 0.58 eta 0.78 artean oszilatu zuen (*Ingurune fisikoa*, 0.58; *Elkarrekintzak*, 0.78; *Jolasteko eta ikasteko eszenatokiak*, 0.68; *Programa*, 0.50; *Irakaslearen rola*; 0.52) (DeBord et al., 2005). Gure laginari dagokionean, jatorrizko bertsioarekin konparatuta, antzerako balioak izan genituen. Izan ere, Cronbachen alfabaren balioak 0.55 eta 0.72 artean oszilatu zuen. Aipatu beharra dago, Fisher-Bonnet (Kim eta Fedt, 2008) froga gauzatu ostean, ez zela ezberdintasun estatistikoki esanguratsurik aurkitu Cronbachen alfabaren balioetan jatorrizko eta gure laginaren artean. Aldiz, *POEMS* eskalak edukien baliozkotasun egoki eta bateratua du (DeBord et al., 2005).

2.3. Prozedura

Ikerketa hiru fasetan bideratu zen. Lehenik eta behin, Gipuzkoako Haur Hezkuntzako lagin adierazgarria lortzeko asmoz, hainbat ikastetxetan aurkeztu zen proiektua. Zentroetako zuzendari eta Haur Hezkuntzako koordinatzaileekin bilerak burutu ziren, ikerketaren nondik norakoak azaldu zitzaizkien.

Behin zentroen parte-hartzea baieztatu ostean, guraso edo lege tutoreei haurrek ikerketan parte hartzeko baimena eskatu zitzaizen. Baimen horrek aintzat hartzen zituen Datu Pertsonalen Babeserako Legeak zehaztutako

irizpide guztiak. Baimenak lortzerakoan, ikastetxeekin kronograma bat bateratu zen datuen bilketa aurrera eramateko.

Datuen bilketa horren baitan ikastetxe bakoitzean ondorengo datuak jaso ziren. Lehenik eta behin, jolastokiaren deskribapena jasotzen zuten audio eta bideo grabazioak egin ziren. Horrez gain, kanpo espazioei eta bertako elementuei argazkiak atera zitzaizkien. Datu horien bitartez bilatu zen kanpo espazio horietako errealitatearen ahalik eta informazio zehatzena jasotzea. Datu jasotze horretarako ezinbesteko baldintza zen jolastokia hutsik egotea. Audio eta bideo grabaketetan jolastokiaren deskribapena egiteko, alde aurretik ikerketa taldean osatutako protokoloa erabili zen.


Datu horiekin guztiekin bildutako informazioa aintzat hartuta, bi dokumentu mota ezberdin sortu ziren azterketa prozesua errazteko asmoz: alde batetik, behatutako ikastetxe bakoitzeko jolastokiko planoak, *Floorplanner* softwarearen bitartez (aipatu beharra dago plano horiek ez dituztela neurri eta dimentsio errealak, ikastetxeetako kanpo espazioak irudikatzeke zirraborroak besterik ez dira); eta bestetik, glosategi bat osatu zen jolastokietan aurkitutako elementu bakoitzarekin.

Azkenik, kanpo espazioaren kalitatea neurtzeari ekin zitzaion POEMS eskalaren bitartez. Horretarako, neurketa egin zen Haur Hezkuntzako haurrak eta bertako tutorea kanpo espazioan zeuden bitartean 45 eta 60 minutu artean behatuz. Behaketa bidez jaso ez ziren itemen inguruko informazioa eskuratu zen tutoreekin izandako elkarriketari esker.

3. EMAITZAK

Kanpo espazioaren kalitateari dagokionez, batez besteko emaitza 63.73koa izan zen ($DT = 8.15$), 44.94 eta 82.18 arteko puntuazio heina-rekin. 1. irudian adierazten den bezala, *POEMS* eskalak (DeBord et al., 2005) aztertutako bost dimentsioen artean, *Ingurune fisikoa* ($BB = 82.59$; $DT = 10.83$) eta *Elkarrekintzak* ($BB = 80.57$; $DT = 12.4$) dimentsioek jaso zituzten kalitate indize altuak. Aitzitik, *Jolasteko eta ikasteko eszenatokiak* ($BB = 56.68$; $DT = 12.35$), *Programa* ($BB = 51.46$; $DT = 9.23$) eta *Irakaslearen rola* ($BB = 47.37$; $DT = 17.96$) dimentsioetan, emaitzak nabarmen baxuagoak izan ziren.

Aztertutako ikastetxeetako kanpo espazioen kalitatearen informazio zehatzagoa jasotzeko asmoz, izandako emaitza orokorren arabera kanpo espazioen kategorizazioa egin zen. Horretarako, emaitzen arabera, bereizi ziren kalitate baxuko kanpo espazioak (50etik beherako puntuaziodunak), kalitate ertainekoak (50 eta 65 arteko puntuaziodunak), kalitate altukoak (65 eta 85 arteko emaitzadunak) eta kalitate oso altuko kanpo espazioak (85eko puntuaziotik gorakoak). Hurrengo taulan azaltzen dira aztertutako aldagai bakoitzean izandako ehunekoak.



1. irudia

Kanpo espazioaren kalitatea dimentsioka

1. taulan ikus daitekeenez, eginiko kategorizazioak aditzera ematen du kanpo espazio gehienak (%73.3) kalitate ertainekoak direla. Aldi berean, kategorizazioak adierazten du %10.5 kalitate baxukoak direla eta %15.8 berriz, kalitate altukoak. Aipatzekoa da aztertutako kanpo espazio bakar batek ere ez duela oso kalitate altuko kategorizazioa.

Bestalde, aztertutako kalitate dimentsioei dagokienez, agerian gelditzen da zentro askotan dagoela espazio fisiko segurua, nahikoa estimulagarria eta ongi antolatu eta diseinatutakoa, kalitate altuko (%78.9) zein oso altuko (%21.1). Are gehiago, zentro askotan ikusi da elkarrekintza positiboak baimentzen direla, aztertutako kanpo espazioen %89.4 kalitate altu edo oso altukoak baitira. Aitzitik, *Jolasteko eta ikasteko eszenatokiak* dimentsioan, kalitate ertaina da nagusi (%47.4). Dimentsio horretan gainera, oso bestelako emaitzak eman dira, kanpo espazioen %26.3 kalitate baxukoak diren bitartean, beste horrenbeste baitira kalitate altukoak. Azkenik, kanpo espazio gehienetan kalitate baxuak eta ertainak eman dira *Programa* (%42.1 eta

1. taula
Kanpo espazioaren kalitatea

Dimentsioa	Kalitate maila	N	Ehunekoak
Kalitatea	Kalitate baxua	2	%10.5
	Kalitate ertaina	14	%73.7
	Kalitate altua	3	%15.8
	Oso kalitate altua	0	%0.0
	Guztira	19	%100.0
Ingurune fisikoa	Kalitate baxua	0	%0.0
	Kalitate ertaina	0	%0.0
	Kalitate altua	15	%78.9
	Oso kalitate altua	4	%21.1
	Guztira	19	%100.0
Elkarrekintzak	Kalitate baxua	1	%5.3
	Kalitate ertaina	1	%5.3
	Kalitate altua	15	%78.9
	Oso kalitate altua	2	%10.5
	Guztira	19	%100.0
Jolasa eta ikaskuntza	Kalitate baxua	5	%26.3
	Kalitate ertaina	9	%47.4
	Kalitate altua	5	%26.3
	Oso kalitate altua	0	%0.0
	Guztira	19	%100.0
Programa	Kalitate baxua	8	%42.1
	Kalitate ertaina	7	%36.8
	Kalitate altua	4	%21.1
	Oso kalitate altua	0	%0.0
	Guztira	19	%100
Irakaslearen rola	Kalitate baxua	10	%52.6
	Kalitate ertaina	6	%31.6
	Kalitate altua	3	%15.8
	Oso kalitate altua	0	%0
	Guztira	19	%100

%38.8 hurrenez hurren) eta *Irakaslearen rola* (%52.6 eta %31.6 hurrenez hurren) dimentsioetan.

Emaizta orokorrak eta dimentsioetakoak osotasunean aditzera eman eta gero, sakonago begiratuko zaie dimentsioen baitan aztertutako itemei eta kanpo espazioak hobetzeko balizko aukerei. Adibidez, *Ingurune fisikoaren dimentsioaren baitan* ($BB = 82.59$; $DT = 10.83$), hobetzeko aukerak antzematen dira ikastetxeko sarreraren egokitasunean, bereziki irisgarritasuna errazteko baliabideei eta aterpeari dagokienez. Halaber, sarreratik haratago, barruko geletatik ohiko jolastokirako sarbide zuzenik ez izatea, aterpe txikiak edo aterperik ez egotea, elementu naturalen eskasia edo kanpo espazioaren estetika edo erakargarritasuna izan dira hobetzeko aukera erakutsi duten beste itemak.

Elkarrekintzen dimentsioari dagokionez, emaitza altuak izan badira ere ($BB = 80.57$; $DT = 12.4$), zenbait itemetan puntuazio baxuagoak eman dira. Kasu honetan, azpimarratzekoak dira elementu naturalekin hartu-emanetan jartzeko eta haurren arteko elkarrekintzak errazteko baliabide eta ekintza urriak. Halaber, behaketetan antzeman da haurren eta irakaslearen arteko elkarrekintza gutxi dagoela eta horrenbestez, haurren seinaleei (interes, behar...) erantzuteko zailtasunak daudela. Soka bereetik, agerian gelditu da familien presentzia urria ikastetxeetako kanpo espazioetan.

Bestalde, *Jolasteko eta Ikasteko Eszenatokiak* aztertzen dituen dimentsioan emaitza ertainak eman dira ($BB = 56.68$; $DT = 12.35$) eta esan daiteke bere baitako itemetan gorabeherak daudela. Adibidez, balorazio positiboa dute jolaserako eta ikaskuntzarako zenbait eremuk, arlo motorra bultzatzekoak kasu; baina, aldi berean, hutsuneak ematen dira beste hainbatetan.

